

AIARALDEA *hemen*



UHOLDEAK VALENTZIAN:
**Hondamendiaren aurrean
elkartasun oldea abian da
berriaz ere** 2-3 or.

TASIO MARTIN:
**Yosemiteko El Capitan
ezagunean bere sinadura utzi
du urduñarrak** 24-25 or.



**“Esklerosi
anizkotzak
ezin du
nire
bizitza
gelditu”**

AINHOA JUNGITU

LAUDIO 4
**Emakume* Abertzaleon
X. Topaketa Feministak
aurkeztu dituzte**
Azaroaren 9an amaituko da
topaketan parte hartzeko
izen-emate epea

ARTZINIEGA 6
**Artziniegako Udalak
2025eko ordenantza
fiskalak onartu ditu**
Herriko etxebizitza hutsei
%50eko erretegia ezarriko die
Udalak

AIARALDEA 7
**Ablatu da eskualdean
odola emateko kanpaina
berria**
Azaroan eta abenduan Laudion
zein Amurrioren eman ahalko
dute odola herritarrek, osasun
zentroetako beharrak asetzeko

AIARALDEA 12-15
**Ezkontza kopuruak behera
egin du eskualdean azken
hamarkadetan**
1970ko hamarkadatik hona
%65 egin du behera ezkongaien
kopuruak. Beste ohitura asko
aldatu dira ere

KULTURA 20
**‘Denok gara norbait’
erakusketa aurkeztu du
Maied Urrutiak**
Urrutiaren ikasleek hiru
emakumeri egindako
erretatuak eskegi dituzte
Amurrioko kaleetan

KIROLA 26-27
**Fraideburu protagonista
Gorobel ibilaldiaren azken
edizio arrakastatsuan**
1.200 mendizale batu dira,
eta Mendiko Lagunak taldeko
kideek oso positiboki baloratu
dute aurtengo ibilaldia

Zumalakarregi 3, Laudio
www.lacasaderesa.com
94 672 04 93

HAURBAREN
LOTERIAN
1. SARIA
2024

EZ GERATU DEZIMO GABE

**ATSEDENA
OPARITU**

Egonaldi eta bainuetxe
opariak: bikoteentzako
egonaldi erromantikoak,
zirkuitu termalak, gosariak,
masajeak...

**ERRESERBATU
ZURE BONUA!**

HOTEL ORDUÑA PLAZA
Balneario

www.hotelbalneariorduna.com
balneario@hotelordunaplaza.com
94 556 90 38

Balneario Areatza

www.hotelbalnearioareatza.com
balneario@hotelbalnearioareatza.com
94 657 27 05

**selene
fruitadenda**

GABONETAKO SASKIAK
Neurrira egindako bertoko barazkiez eta frutez osatutako saskiak.
Eskatu informazio gehiago konpromisorik gabe!

945 092 550 • Landako kalea 1, Amurrio • @frutadenda_selene

analisia

Laudio 1983, Valentzia 2024, alderaketarik dago?



Iaz gogoratu zen Laudion eta Bilbon 1983ko uholdeen 40. urteurrena, zarata handirik gabe egia esanda. Valentzian pasa den astean gertatutakoak jende ugariaren oroitzapenak piztu ditu.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Valentziako euriteek eragin-dako uholdeek txikizioa, heriotza eta harridura sortu dute, ez soilik biktimen artean eta iritzi publikoan, baita Laudioko uholdeak bizi izan zituztenean artean ere. Izan ere, 41 urte pasa dira euriteek sei hildako eta suntsipen ikaragarria sortu zutenetik, eta askori lokatzaz beteriko Laudio hura etorri zaie buruara.

Baina, ba al dago alderaketarik bi gertakarien artean? Zenbaki hotzek esaten dute baietz eta ezetz. Izan ere, eurriak Laudion 450 litro metro karratuko utzi zituen egun batean, eta tarte berean Valentzian, aldiz, 630,6 litro metro karratuko. Kasu bietan euri kopurua astakeria izan zen. Dena den, hildakoak dira dramaren adierazlerik esanguratsuenak eta Valentzian 200 he-

rritar baino gehiago zendu dira, Laudion sei izan ziren bitartean. Horrez gain, argitzeke dago Mediterraneoaren alboan desagertutako lagunak behin betiko datua.

Gertakarietara bagoaz, Laudion bi erreka izan ziren arazo gehienak iturri, gerora Nerbioian eta herrigunean islatu zena. Hain zuzen, San Joan erreka etxe bat eraman zuen aurretik eta barruan zegoen pertsona. Aldaiko erreka ere Guardia Zibilaren patrol bat irentsi zuen eta barruan zeuden lau lagun ito ziren. Bilbon euriteek handitutako Ibaizabalak eta itsasgorak eragin zuten hondamendia.

Valentzian ordea, ibaien gainditzea askoz orokorragoa izan da, trokak txikitu ditu eta baita herriak ere. Aiaraldean uholdeen kaltea ez zen eskualde osora iritsi, baina Valentzian Valentzia hiriburutik hegoaldera hainbat herri suntsitu dituz-

te euriteek, eragin eremu askoz zabalagoan. 77.000 etxebizitzek baino gehiagok kalteak izan dituzte, antza.

Auzolana edo talka politikoa
1983ko egoera politikoa ez zen xamurra Euskal Herrian, ezta Laudion ere. Gatazka armatuko urte latzenak ziren horiek eta indar politikoen arteko tentsioa ez zen txikia. Askok uste zuten ezinezkoa zela EAJ, HB edota gainerako alderdi politikoa helburu berarekin lan egiten ikustea. Uholdeek ez zituzten ezberdintasunak ezabatu, baina gutxienez murriztu zituzten guztiek aldi eta norabide berean lan egiteko; Juan Jose Ibarretxe zen alkate legealdi horretan eta hainbat erakunderen laguntza jaso zen (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiar Gobernua...), baina interesgarriena herritarren aldetik etorritzen. Bizilagunek kuadrillak sortu zi-

Valentzia hiriburutik hegoaldera hainbat herri suntsitu dituzte euriteek, eragin eremu askoz zabalagoan. 77.000 etxebizitzek baino gehiagok kalteak izan dituzte, antza

tuzten eta auzoka eta eremuka banatu ziren lokatza kentzeko eta euren udalerrira txukuntzeko. "Herriak soilik salba dezake herria" leloa praktikara eramanda, umore onez eta gogo handiz, audioarrak zein kanpotik etorritakoak aritu ziren inor itxaron gabe (batzuek gogoratzen dituzte Nafarroatik ere heldu zela jendea traktoreekin, edota UAGA sindikatuko boluntarioak). Nolabait, erakundeak eta alderdien inspirazioa izan ziren herritar xume horiek guztiak.

Valentzian egoera ez da ezberdina arlo horretan. Euren bizitza arriskuan ikusi ondoren eta lagunak edo senideak galdu ostean, milaka valentziar atara dira tresnak eskuan kaleak garbitzera. Aiaraldeko hainbat herritar ere jarrera eredu garria erakusten ari dira eta Valentziara jaisten ari dira bilketak banatzera, makinekin laguntzera

analisia

edo produktuak ematera. Baina Espainiako Estatuan dagoen giro politikoa inoiz baino polarizatua dago eta bistakoa da, egungo iragarpen tresna teknologiko guztiak egonda ere, larrialdiaren kudeaketa ez dela egozia izan eta ez dela ona izaten ari orain ere, inondik inora.

Esaterako, Laudioko euriteak gertatu zirenean, jende ugari zegoen kalean. Abuztuaren 26 zen, Odoloste Egunaren bezpera. Edonola ere, duela 41 urte ez zegoen iragarpen sistema horren sofistikuturik ezta komunikazio bide telefoniko edo telematikorik. Ondorioz, ez da harriztekoa Laudio lagun multzoak isolatuta geratzea han hemenka eurien erdian.

Valentzian, aldiz, aukera egon zen alarma zabaltzeko aurretiaz, baina ez zen egin. Horrek guztiak hauspatu du herriarren amorrua, Pedro Sanchezen eta Erregeen aurrean piztu zena igandean. Zilegitasun osoa duen haserre hori, tamalez, eskuin muturrak lainotu du. Askok zabaldu dute protesta horren atzean eskuin muturreko taldeak egon direla. Egia da egun hauetan Alvis Perez eurodiputatua edota Desokupa bezalako elementuak agertu direla Valentzian. Dena den, gogoratu beharra dago, halaber, Vox eta PP alderdiek erabaki zutela Generalitatean Larrialdietarako Unitate Valentziarra kentzea. Unitate horren aurrekontua 9 milioi eurokoa zen, baina aldaketa klima-

tikoazenez bere ardatzetakobatz, ezabatu zuten, zezenketetan urtero 40 milioi euro gastatzen dituzten bitartean.

Borroka politikoa

Lehen aipatu bezala, udalerriri arabarrean auzolan giroak gaintitu zuten talka politikorako tentazioa. Hala ere, Armada Espainiarrak parte hartu zenez garbiketa lanetan, estatu kolpea emateko zorian egon zen erakunde hori zuritzeko baliatu zuten abagunea hedabideek.

Gauza bera esan daiteke Guardia Zibilari buruz. "Berunezko urte" horietan, ETak inoizko eraso kopuru handiena gauzatu zuten institutu armatuaren kontra eta komunikabideek goripatu zuten guardia zibilen jarraera, nahiz eta tortura salaketak oso ugariak izan euren kontra. Gainera, herritar batzuek azpimarratu zuten moduan, Laudio hildako sei lagun artean, hiru guardia zibilak izan ziren. Euren eskualdeko neska bat ere zendu zen. Guardia Zibil talde hori tematu zen Aldaiko Erreka zeharkatzen, nahiz eta herritarrek linternekin adierazi zegoen arriskua. Azkenean, urak eramane zituen eta guztiak hil ziren, baita erreskatatu behar zuten emakume gaztea. Biziraun zuten guardia zibilaren bizitza, gainera, HBko koadrilla batek salbatu zuten, Aldaiko erreka alboko etxebizitza batean baitzegoen. Ironikoagoa izan zen guardia zibila uretatik

atera zuten gizonetakoak, Rafa Isasik, urte batzuk beranduago salatu zituela Guardia Zibilak torturatu zuela, ETarekin harremana izatea leporatuta atxilotu baitzuten.

Etorkizun latza

Uholdeen lokatza desagertzen denean, etorkizuna hipotekatzeko duen errealitatea azalera-tzen da. Laudioko Udalak arazo ekonomikoak izan zituen hainbat urtez uholdeen ondorioz, nahiz eta Arabako Foru Aldundiak 90 milioi euroko plan berezia onartu zuten. Aipatzekoa da ere katastrofea larriagoa izan ahal zela. Villosa eskualdeko enpresa motorean labeak itzaltzeko arriskuan egon ziren, baina Gasteiztik ekarritako erregaia-ekin ekidin zuten.

Bestalde, Nerbioi ibaiko zein San Juan eta Aldaiko erreketako ibilguak konpontzeko ahaleginak ez dira bukatu. Egun URA Agentzia lanean ari da horretarako eta bidean ez dira polemika gutxi geratu. Oroitu beharra dago 2010. urtean puri-purian egon zela plan bat zeinakzenbait eraikin eraitsi nahi zituen, uholde arriskuen ondorioz. Berlojatzeko plataformaren sorrera ekarri zuten horrek, besteak beste.

Hori guztiak ikusita, Valentziako tragedia hedabidetan desagertzen denean, oraindik bide luzea izango dute herritarrek normaltasuna berreskuratzeke, baldin eta noizbait itzultzen bada.

1983KO UHOLDEAK EUSKAL HERRIA



34

hildako, horietatik 6 Laudio.

200.000 MILIOI PZTA.

-ko galera materialak (1.202.000.000€).



530

litro metro karratuko, egun batean.

2024KO UHOLDEAK VALENTZIA



215

hildako (azaroaren 4ko behin behineko datua).

Galera materialak kalkulatzeko daude.



630

litro metro karratuko, egun batean.




Aiaraldetik Valentziara asteburuan bertaratutako bizilagunetako batzuk, talde argazki batean. Aiaraldea.eus

APUNTEAK

LAUDIO 1983: UR ETA ELKARTASUN OLDEA

Aiaraldea Komunikabideak 2013an ekoiztutako 51 minutuko dokumentala. 1983ko uholdeen hainbat lekukotza jasotzen ditu.



www.labur.eus/uholdeak1983

herriz herri

Laudio

Emakume* Abertzaleon X. Topaketa Feministak aurkeztu dituzte auzolanerako deia zabalduta



Auzolanerako deia zabalduta. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iragan igandean, auzolatu zuten Laudion Emakume* Abertzaleon X. Topaketa eskualdeko kideen artean. Berez, jardunaldia azaroaren 16an izango da Laudion eta lau gune hartuko dituzte: kiroldegia goizean eztabaidetarako, institutua eguerdian bazkaltzeko, plaza arratsaldeko ekitaldian eta Faktoria gauean aisialdirako.

Antolatzaileek aipatu dute 500 lagun ingururen parte hartzea

500 lagun ingururen parte hartzea aurreikusi dute

aurreikusi dutela eta, ondorioz, azpiegitura lan mardula egongo dela behar guztiak asetzeko: aulkiak eta mahaiak mugitzea, txandak egitea... Hori dela eta, auzolanerako aritzeko deia zabalduta azaroaren 15ean eta 16an bertan.

Halaber, antolakuntzak animatu ditu interesdunak ahalik eta lasterren izena ematera, azaroaren 9an amaituko baita horretarako aukera. Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatzen ditu topaketa hauek bi urtean behin eta egitarau osoaren berri eman dute jadanik.

BABESTUTAKO EDUKIA

“Egunerokoan ere erabiltzen dut Laudio Berrikusi app-a; agenda deialdiak, lan eskaintzak edota zozketak aurkitu daitezke bertan”

APILLek antolatutako 'Merkataritza Festako' zozketa irabazi duzu. Zer egokitu zaizu zehazki?

1.000 euroko saria egokitu zitzaidan APILL elkartereko saltokietan gastatzeko. Urriaren 18an, egun bakarrean, gastatu behar izan nuen guztia, nahiz eta aurretik begiratu nuen zer nahi nuen zehazki. Hainbat establezimendutan gastatu behar nuen diru hori, baldintza batzuekin: komertzio batean ezin nuen 300 euro baino gehiago gastatu eta besteetan 20 eta 100 euro artean gastatu behar nituen.

Laudio Berrikusi plataformaren bidez egin zen zozketa. Zure egunerokoan erabiltzen duzun tresna da hori?

Erosketa bat egiten dudan aldiro, erosketa horren ziurtagi-

ria igotzen dut Laudio Berrikusi plataformara. Asko dira egiten diren zozketak, eta beti dago baten bat irabazteko aukera; begira nire kasua!

Egunerokoan ere erabiltzen dut Laudio Berrikusi plataformara. Bertan eskuragarri dago herriko agenda eta merkatariek antolatutako ekintzen berri ere ematen du. Lan eskaintzak eta ikastaroak ere iragartzen dituzte, oso erabilgarria da. Nik eguneroko begiratzen dut.

Espero zenuen zuri egokitzea saria?

Inondik inora. Gainera, nire urtebetetze egunean jakinarazi zidaten! Deitu ninduen mutilari txantxetan ari ote zen galdetu nion (barreak).

Horrelako ekimenek tokiko komertzioa sustatzea dute hel-

buru. Zuk zer garrantzi ematen diozu horri?

Horrelakoak oso ondo daudela deritzot. Gainera, nik asko kontsumitzen dut tokiko dendetan, Laudion, Amurrian edota inguruko beste edozein herritan. Herriko saltokiek gure laguntza behar dute. Geroz eta gehiago gailentzen ari dira beste kontsumo eredu batzuk, eta min handia egiten die horrek gure gertuko komertzioei. Ulertzen dut jende askorentzat erosoa goa izatea Internet bidez erostea, baina nik herrian bertan erosten dut ahal dudana aldiro.

Zer du tokiko merkataritzak, saltoki handiek edo Internet bidezko plataformek ez dutena?

Gertutasuna batez ere. Gainera, komertzioak bizia ematen die gure kaleei. Bestela dena aurkituko genuke itxita.



Urriaren 18an gastatu zuen saria Sonia Fernandezek. Aiaraldea.eus



Deskargatu Laudio Berrikusi APPa eta gozatu!



www.laudiocomercial.com



Aiaraldea

Pentsiodunek Renfeko trenen irisgarritasuna aldarrikatu dute Espainiako Gobernu Ordezkaritzaren aurrean



Azaroaren 4an mobilizazioa egin zuten Bilbon. [Aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus)

Testua
Aitor Aspuru Saez

Renfeko C-3 lineako pentsiodun ugari mobilizatu ziren azaroaren 4an exijitzeko garraio publikoa irisgarria izan dadin, bereziki, mugikortasun arazoak duten laguntzat. Horrela, goizeko 11:20an Urduñatik abiatu zen treneraigoziren hainbat aiaraldean. Horien artean zeuden zerbitzu publiko hori baliatzeko oztopoak di-

tuzten zenbait herritar, Maria Luisa Goikoetxea, esaterako.

Behin Bilbora helduta, Plaza Bibribilean batu ziren Bilboko pentsiodunekin zeintzuekudaletxearen aurrean elkartzen diren astelehenero-eta Moyua Plazarajozuten, han baitago Espainiako Gobernu Ordezkaritza.

Han irisgarritasuna bermatzen duen zerbitzu publikoa exijitzen duen eskutizat laga zuten, Oscar Puente ministroarentzat.

Abiatu da eskualdean odola emateko kanpaina

Testua
Elene Abaroa Zorrozua

Ikasturte hasierarekin batera hasten da Arabako Odol Emaileen Elkartearen odol emate kanpainarekin. Eskualdean, Laudion azaroan zehar izango da odola emateko aukera eta abenduan Amurrion. Hiru kanpaina izaten dituzte urtero: urte hasieran, udabe-

ri inguruan eta urte amaieran. Odola egunero behar da ospitaletan eta ez larrialdiatarako bakarrik, ebakuntzakegiteko eta laborategietan sendagai eta txerto berriak lortzeko ere behar izaten da. EAE osora zabaltzen da beharra Errelebo falta eta belaualdi berriak lortzea da zailena, Aiala Elorza Arabako odol-emaileen elkartearen arduradunak adiera-

zi duenez: “Zaila izaten da dagoen beharra ikustaraztea”. Hala ere, eskualdean oso finkatuta dago odola ematea eta herrien artean distantzia txikiak izateak laguntzen du horretan. Laudion eta Amurrion hiru aldiz etortzen dira urtero. Laudion azaroko sei egunetan izango dira eta abenduan joango dira Amurrion, oraindik finkatzeko dauden datetan.

AIARALDEA

KOMUNIKABIDE
FAKTORIA

Jarrai gaitzazu!



QUICK PC REPAIR
Informatika argi eta erraz



ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
gainkosturik gabe

- Salmenta · Konponketak
- Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako
- Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tikieta diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLAN**ari buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickcrepair.es · quickcrepair@quickcrepair.es

herriz herri

Artziniega

Artziniegako Udalak 2025eko ordenantza fiskalak onartu ditu

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Artziniegako Udalak prest ditu 2025erako ordenantza fiskalak. Azken udal osoko bilkuran, onartu zuten zerga, tasa eta prezio publikoen berriketa, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAjren abstentzioarekin.

Zabor-bilketa zerbitzuan izango da aldaketarik nabarmena. Europar Batzordeak kudeaketaren kostuaren %100 herritarrek ordaintzea agintzen du, eta helburu hori erdiesteko igoko dute tasaren prezioa. Beste bi arrazoi nagusi daude zabor-bilketa zerbitzuaren igoeraren atzean. Alde batetik Aiarako Kuadrillakegingo duen zerbitzuaren lizitazio berria dago. Bestetik, Gardelegiko zaborte giko tratamendu instalazioetako zerbitzuen prezio igoerak ere eragin zuzena izango du zergaren berriketan. Gauzak horrela Artziniegako etxebizitzek urtean 116,44 euro ordaintzetik 142,42 euro ordaintzera igaroko dira. Periferietako herrietako etxebizitzek kasuan prezioen diferentzia honako hau izango da: urtean 87,33 euro ordaintzetik 128,28 euro ordaintzera igaroko dira herritarrek. Udalaren aurreikuspenen arabera 2026an kostuaren %100 bere gain hartuko dute herritarrek, Europar legediak eskatu bezala.

Etxebizitza hutsak

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez, behar gehien duten errentei hobariak eskaintzea izan da tokiko-administrazioaren asmoa. Horri lotuta honako hau adierazi du Joseba Vivanco Artziniegako alkateak: "Hemen ez dira karga-tasakukitzen, baizik eta ordenantza aldatzen da, alde batetik, eta oso garrantzitsua, familia-unitatearen errenta-tartean eta familia-unitate horretako kideen kopuruaren arabera urtean 42.000 euroko diru-sarreraren zenbatekora iritsi arte, errenta txikiak dituzten familia-unitateei deskontua aplikatzeko". Energia-efizientziarako neurriak hartzen ari diren etxebizitzetara ere deskontuak aplikatuko dizkie Udalak. Berrikuntza

nagusiena, ordea, etxebizitza hutsi aplikatuko zaien %50erainoko errekarua izango da. "Azken alderdi hau Legeak Udalei ahalbidetzen digun tresna bat da, eta inplementatzen hasi nahi dugu, beste tresna bat izan dadin, askoren artean, etxebizitza hutsaren merkatura irteera hori errazteko", azaldu du Vivancok.

Beste zerga batzuk

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez %10eko igoera ezarri du Udalak, onartutako ordenantza fiskal berrietan. Zerga hori 2015etik izoztuta egon da, eta batz bestez 8 euro gehiago ordaindu beharko dute artziniegarrak.

Halaber, kasu honetan ere, hobariak aplikatuko zaizkie ibilgailu mota guztiei, "ingurumenean duten eraginaren eta energia aurreztearen arabera, eta hobari bat familia ugariarentzat, errentaren arabera arautua". Era berean udal-hilerria arautzen duen ordenantza eta zerbitzu publikoak eta administrazio-jarduerak egiteko ordenantzak eguneratu egin dituzte.

Udal igerilekuen sarrera prezioan igoera ere aurreikusitako ordenantza fiskal berriek. 2025ean euro bat igoko da banakako sarrera eta bost euro denboraldiko abonua. Horren atzean dagoen arrazoia da datorren urtean igerilekuak kudeatzeko kontratu berria lizitatu dela, eta horrek "nabarmen handituko du kostua" Udalaren hitzetan.

Behar gehien duten errentei laguntza eskaintzea izan da ordenantza fiskal berrien helburuetako bat. Joseba Vivancok honela defenditu ditu hartutako erabakiak: "Zergak eta tasak jaisteak eta izozteak ez dute konpontzen egoera ahulenean dauden pertsonen eta bizikidetzaren egoera larria, eta ez du inolako ekarpenik egiten desberdintasun sozialak gainditzeko eta aberastasuna birbanatzeko. Izan ere, hobariak azpimarratu behar ditugu. Hobarien bidez, benetan kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsonen eta bizikidetzaren unitateei lagun diezaikegu. Eta hori da bidea".

Urduña

Frontoi parkeko haurren jolastokia berritu dute



Frontoi kaleko parkea. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Frontoi parkeko haurren jolastokia berritu du Urduñako Udalak, 18.000 euroko inbertsioa eginda. Espazioan "segurtasuna, irisgarritasuna eta erakargarritasuna" hobetzea izan da lanen xedea. Tokiko erakundeak adierazi du "konpromiso etengabea" hartu duela,

"udalerraren espazio publikoak, bereziki haurren parkeak, hobetzeko eta modernizatzeko".

Jolastoki gehiago

Gauzak hala, Udalak iragarri du hirian dauden gaineko jolastokiak ere berritzeko asmoa duela, eta diru gehiago bideratuko dutela zeregin horretara datorren urteko aurrekontuetan.



B
BOR-BOR
ELKARTEA

MUNDUKO KULTURAK AIARALDEAN JAIA

2024.11.09 LAUDIO

11:00 AMURRIKO PLAZATIK
Faktoriara bidaia (11:26ean trenan)

11:30 LAUDIOKO PLAZATIK
Laudioko plazatik Faktoriara pasoa

12:00-14:00 FAKTORIAN
HARRERA
KALAKA EGUR JOKOAK UMEENTZAT
AUZOKO ELKARRIZKETAK dinamikarekin KULTURARTEKOTASUN KAFEAKI

14:30 FAKTORIAN
KULTURARTEKOTASUN BAZKARIA
Ekarri nahi duzuna eta gozatu munduko janean
(Ogia, platerak eta edalontziak antolakuntzaren esku)

15:30 FAKTORIAN
KULTURARTEKOTASUN FAMILIAK argazkia eta
HIZKUNTZEN SASIAK aurkezpena

16:00 FAKTORIAN
MUNDUKO MUSIKA

17:00 FAKTORIAN
TAILER BIZIAK: AIARANDREEN TAUPADAK batukada

18:00 FAKTORIAN
Topaketen amaiera








Aiara

Aginagako Larrabe gaztandegiak berriro irabazi du Gernikako Urriko Azken Asteleheneko Azokako lehiaketa



Gorobel azpian dute Jose Ramon Martinezek eta Lourdes Menoyok gaztandegia. **Gernikako Udala**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aginagako Larrabe gaztandegiak sari berria gehitu zuten iragan urriaren 28an bere palmaresera. Izan ere, bertako kideek Gernikako Urriko Azken Asteleheneko Azoka irabazi zuten berriro. Gainera, gazta zati erdia eskuratzeko enkantean inoizko diru kopuru handiena ordaindu dute, 8.000 euro.

Gautezgiz Arteagako Kanala Beach jatetxeak erosi zuen gaz-

ta zati aiarrara, inoizko diru kopuru handiena emanda trukean. Izan ere, Aginagako gaztandegiak bi aldiz irabazi du saria; 2019an 6.600 eurora heldu zen enkantea eta 2014an, aldiz, 7.500 eurora.

Aintzat hartu beharra dago dirutza hori ez dela ekoizleentzat, elkartasun xedeetara bideratzen delako. Horrela, Larrabe gaztandegiak ez du aparteko etekin ekonomikorik izango, baina urte luzez landutako ospe ona mantentzen eta hobetzen jarraituko du.

Ez da ahaztu behar aiarrarek

hamaika aitortza eta sari jaso dituztela. Gernikakoak ez ezik, azoka gehiagok babestu dute euren gaztaren kalitatea eta, esaterako, 2021ean Arabako Idiazabal Txapelketa irabazi zuten.

Lourdes Menoyo Mendia eta Jose Ramon Martinez Elejalde daude, gehienbat, gaztandegiarren atzean. Euren sekretua da ekoizpen prozesu osoaren kontrola izaten saiatzen direla. Gorobel azpian dute bazka euren ardiek eta euren esnearekin egiten dituzte gaztak.

Erretes Lantenoko errota birgaitzeko 3.190,91 euroko dirulaguntza eman du Aldundiak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Arabako Foru Aldundiak iragan astean berretsi zuen Erretes Lantenoko errota birgaitze proiektua diruz laguntzea, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe elementu txikiak kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku hartzeak egiteko deialdiaren barruan. Hain zuzen, 3.190,91 euro ordainduko ditu Aldundiak guztira 4.985,80 euroko kostua

izango duen lanean. Orotara, hamabi proiektu lagunduko ditu foru erakundeak. Ekainean egin zuten deialdia, baina hautatutako proiektu batek uko egin dio aurrera egiteari eta, horren ordez, beste lauri bideratu die diru kopurua.

Horrela, Foru Aldundiak 155.000 euroko inbertsioa egingo du, baina tokiko erakundeek beste 87.187,5 eurokoa. Guztira, 242.187,5 euroko inbertsioa egingo da Arabako ondarea zaharberritzeko.



Zatoz eta dastatu gure sagardotegia eta dastatze menuak!

Txotx!



945 24 48 52 / 657 73 65 99

www.trebinu.com

@trebinu_sagardotegia

TORRESAR
MADERAS



PELLET ETA BRIKETAK
Landare-erregai ekologikoa eta ekonomikoa

BEROGAILUAK ETA TXIMINIAK

LACUNZA RAVELLI

GALDARAK


ERRAUTS XURGAGAILUA

METALEZKO EGURTEGIAK

EGUR-LABEAK

Torresar auzoa 8, OROZKO
946 61 02 28 www.maderas-torresar.com

babestutako edukia



7, eguena
19:30 · Faktorian
SAIO IREKIA/
NATURAK
ESKEINITAKOAK
AITZIBER DUARTE
DOAN
#SORMENFAKTORIA
#KULTURFAKTORIA




8, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
KOKORIKO/
LUDETEKA EZ
DINAMIZATUA
ARIMEN GAUA
DOAN
#HEZKUNTZAFAKTORIA



9, zapatua
12:00-18:00 · Faktorian
TOPAKETA/
MUNDUKO KULTURAK
AIARALDEAN
DOAN
#BORBORELKARTEA




10, domeka
18:00 · Faktorian
ARTE HARTZE ZIKLOA/
LA DESCARADA
ANE GEBARA
BAZKIDEEK: 8€
EZ-BAZKIDEEK: 10€
LANGABE/IKASLEEK: 5€
#KULTURFAKTORIA




13, eguaztena
17:00-19:00 · Faktorian
KALE ARTE/
GRAFFITI TAILERRA
INDA
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA



13, eguaztena
18:00 · Faktorian
AURKEZPENA/
YOGATTIKI PROIEKTUA
DOAN
#KOMUNITATEFAKTORIA



14, eguena
19:30 · Faktorian
SAIO IREKIA/
ALTER NATION
IDOIA TAPIA
DOAN
#SORMENFAKTORIA
#KULTURFAKTORIA




15, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
KOKORIKO/
LUDETEKA
UDAZKENEKO ELEMENTUAK
SORTZEN
DOAN
#HEZKUNTZAFAKTORIA



15, barikua
19:00 · Faktorian
BORBOR SOLASALDIA/
EZ DADIN
BIZITZA ETEN
AINARA SANTAMARIA DOAN
#BORBORELKARTEA



16, zapatua
22:30 · Faktorian
EMAKUME* ABERTZALEON X. TOPAKETA
FEMINISTAK/
BERBA LABANAKAZ/
DJ AZKURA/ DJ
LATXIRONGA
KONTZERTUAK
DOAN
#BILGUNEFEMINISTA
#KOMUNITATEFAKTORIA




18, astelehena
17:00-19:00 · Faktorian
KALE ARTE/
RAP TAILERRA
LA BASU
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA



19, martitzena
18:00 · Faktorian
FAMILIEN KABIA/
EDOZKITZEA
OLATZ RAMIREZ
DOAN
#HEZKUNTZAFAKTORIA



20, eguaztena
17:00-19:00 · Faktorian
KALE ARTE/
PARKOUR TAILERRA
AMETS ETA LAGUNAK
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA




21, eguena
17:00-19:00 · Faktorian
KALE ARTE/
RAP TAILERRA
LA BASU
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA



22, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
KOKORIKO/
LUDETEKA
UDAZKENETIK NEGURA
DOAN
#HEZKUNTZAFAKTORIA



22, barikua
20:30 · Faktorian
KONTZERTUA/
GARI
BAZKIDEEK: 13€
EZ-BAZKIDEEK: 15€
#KULTURFAKTORIA



23, zapatua
18:00 · Faktorian
ARTE HARTZE ZIKLOA/
ARTE EMAN FESTA
ENERITZ FURYAK/ AITZIBER
DUARTE/ IDOIA TAPIA/ AINARA
BENTO/ PERU GALBETE/ JARE
PRIETO/ MARIA ITURBE ETA
MAIALEN RAMIREZ/ AMAIA
MOLINET
BAZKIDEEK: 8€
EZ-BAZKIDEEK: 10€
LANGABE/IKASLEEK: 5€
#SORMENFAKTORIA
#KULTURFAKTORIA



24, domeka
11:00-13:00 · Faktorian
KOKORIKO/
0-3 ESPAZIOA
BAZKIDEEK: 5€
EZ-BAZKIDEEK: 6€
#HEZKUNTZAFAKTORIA



28, eguena
19:00 · Faktorian
SOLASALDIA/
AZKEN
ERROMANTIKOAK ETA
LOS ÚLTIMOS
ROMÁNTICOS,
AURREZ AURRE
TXANI RODRIGUEZ ETA MIREN
GAZTAÑAGA
DOAN
#KOMUNIKABIDEFAKTORIA



29, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
KOKORIKO/
LUDETEKA
MUSIKA TRESNAK
DOAN
#HEZKUNTZAFAKTORIA



29, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
KALE ARTE/
DJ TAILERRA
RLANTZ
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA



30, zapatua
11:00-14:00 · Faktorian
KOKORIKO/
JOSTAILU TRUKE
AZOKA
DOAN
#HEZKUNTZAFAKTORIA



30, zapatua
12:00-14:00/17:00-19:00 Faktorian
KALE ARTE/
DJ TAILERRA
RLANTZ
PARKOUR TAILERRA
AMETS ETA LAGUNAK
GRAFFITI TAILERRA
HANDY
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA



30, zapatua
20:00 · Faktorian
KALE ARTE/
GRAFESTA
KALE ARTE TAILERREN
EMANALDIA + BELGORRI/ DJ
TRUJO
DOAN
#GAZTEGAZTEAK
#KULTURFAKTORIA

AIARALDEA ERMITZEN
FAK
TOR
RIA



WWW.FAKTORIA.EUS



Arrankudiaga-Zollo

Duela hamar urteko herri galdeketa gogoratu dute



Duela hamar urte egindako tokiko demokrazia ariketa ospatu dute. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 3an Arrankudiaga-Zolloko herrigunea hartu zuten duela hamar urte egindako galdeketa gogora ekartzeko. 11:30ean sortzaileen azoka antolatu zuten eta 12:30ean abiatu zuten ekitaldia.

Lehenik eta behin, tokiko herritarrek hartu zuten hitza erabakitze eskubidea aldarrikatzeko eta egindako lana gogoratzeko. Gero bertso saioari ekin zioten eta, besteak beste, Joseba Martin ekime naren sustatzaileetako bat oroitu zuten kantuz. Jarraian, Josu Etxaburu Gure Esku Dago plataformaren bozeramaileak hitz egin zuen. Aldarrikatu eta goraipatu zuen Arrankudiaga-Zollok Etxarriren lekukoa hartu zuela herri galdeketa antolatzeko. Argitu zuen due-

Duela hamar urte euskal estatu burujabearen alde agertu ziren Arrankudiaga-Zolloko herritar gehienak

la hamar urteko urratsa mugarri bat izan zela bide luze batean.

Horrela, Etxaburuk azpimarratu zuen egindako pauso hori gabe ezinezkoa litzatekela egun estatus politikoaren eztabaida existitzea.

Halaber, deia zabaldu zuen azaroaren 16an egingo duten "giza kate digitalean" parte hartzeko. Izan ere, hamabi orduko zuzeneko emankizuna egingo dute, Euskal Herriko txoko anitzetatik bidalitako bideoekin, burujabetsuna eta erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Horrez gain, kultura ekintzak prestatuko dituzte hiriburuetan. Igandeko ekitaldiarekin amaitzeko, Gure Esku Dagoen kanta abestu zuten guztien artean eta mokadua hartu zuten. Antolatzailak azpimarratu dute auzolanean prestatu zutela dena, duela hamar urte bezala.

Amurrio

Oinezkoentzako lehentasun gune izendatu dituzte Amurrioko Aiara eta Frontoi kaleak

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Aiara eta Frontoi kaleak oinezkoentzako lehentasunezko zatitatu ditu Udalak, eta mugaberrirak dituzten ibilgailuen zirkulaziorako. Tokiko erakundeak kale horietan "oinezkoen mugikortasuna eta segurtasuna hobetzeko" hartu du neurria.

Aiarakalean, ibilgailuetarako sarbidea debekatuta dago, zamalanetarako gunera sartu behar duten ibilgailuentzat izan ezik, eta lanegunetan eta larunbatetan soilik, 8:00etatik 13:00etara.

Gainera, horretarako baimendu-

tako gehieneko denbora 15 minutu da. Aldez aurretik baimendutako ibilgailuek ere bide horretatik zirkulatu ahal izango dute.

Bestalde, Frontoi kalean ere ibilgailuentzako sarbidea mugatuta dago, eta zamalanetarako soilik dago baimenduta lanegunetan, 8:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 8:00etatik 14:00etara.

Aiara kalean bezala, operazio horiek egiteko gehieneko denbora ordu laurdenekoa da. Era berean, zerbitzu publikoko ibilgailuei, bizikletei eta beharrezko baimena duten beste ibilgailu batzuei ere sar-tzen utziko diete.

ZOLLO
SANMARTINEK 2024

BARIKUE 8
20:00 Txupinazoa
20:30 Elortegi anayak tabernak antolatute
22:30 Orkresta Elektrotuna

ZAPATUE 9
11:30 Puzgarri eta tailerrak Kirikiño aisialdi taldeagaz
13:00 Arguiako Jasoka herri kirol taldeen erakustaldie
20:00 Nafarroa Kanta Taldea
22:00 Kontzertuek ALARMA MOREA BERANDUEGI DJ PIPI

DOMEKEA 10
13:00 Kittu Basque Street Folk

SANMARTIN 11
12:00 Etxebarria aita-semiek
19:30 Bertso parrillea IKER GARITAGOITIA-IZAR MENDIGUREN

ZAPATUE 16
15:00 Herri bazkarie Roberto, Idoia eta Miren trikitilariakaz
22:00 Jaien amaierako txupinazoa

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIK

Arrankudiaga-Zollo
Udala

elkarrizketa

“Esklerosi anizkotzak ezin du nire bizitza gelditu”



ESKLEROSI ANIZKOITZA DIAGNOSTIKATU ZIOTEN DUELA URTEBETE **AINHOA JUNGITURI** (Urduña, 1998). PROIEKTUA GARATU DU BI LAGUNEKIN BATERA GAIXOTASUNARI IKUSGARRITASUNA EMATEKO ETA IKERKETARAKO DIRUA BILTZEKO ASMOZ.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Hitz gutxitan, zer da esklerosi anizkoitza?

Euskal Herrian 3.000 lagunek paiartzen dugun nerbio-sistemako gaixotasuna da esklerosi anizkoitza. Oraindik ez dago argi zerk eragiten duen. Funtsean burmuinak bidalitako zenbait mezu galdu egiten dira gaixotasunaren eraginez, eta bere ondorioen artean daude nekea, gorputz-atalen paralisia edota ikusmena galtzea. Ez dago tratamendurik. Jasotzen dugun medikazioa immunodepresorea da, eta gure defentsak ahultzen ditu.

Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zizuten duela urtebete.

Pandemia ostean hasi zen dena. Gau batean buruko min handiarekin esnatu nintzen, ibuprofenoa hartu eta berriro sartu nintzen ohera. Hurrengo goizean aurpegi erdia lokartuta nuela esnatu nintzen. Une horretan bizitzako une zail bat ari nintzen igarotzen, estres handiarekin. Hasieran estres kontua izango zela suposatu nuen, eta ez nion aparteko garrantziarik eman gertatutakoari. Pasatzen ez zitzaidala ikusita larrialdietara joatea erabaki nuen. Bertan migrainak zirela esan zidaten, estresarekin lotura zuzena zuela. Nik ordea kezkatuta jarraitzen nuen, ez nuen aurpegi erdia nabaritzen.

Gauzak horrela, klinika pribatu batean erresonantzia bat egitea erabaki nuen. Erresonantziak burmuinean nituen hiru orban zuri erakutsi zituen. Azterketa egin zidan medikuak ohartarazi egin zidan tentuz begiratzeko burmuinean nuen hori, esklerosi anizkoitzaren sintoma izan zitekeelakoan. Emakumea izatea eta nire adina arrisku faktoreak ziren.

Galdakaoko ospitalera eraman nuen froga, eta bigarren erresonantzia bat egin zidaten bertan. Hiru orban zuriek bertan jarraitzen zuten. Informazio falta handia dago esklerosi anizkoitzaren inguruan, eta ez dago hau detektatzeko froga zehatzik. Froga desberdinetan azaleratutako alerta seinaleak agertuz gero, orduan hasten dira esklerosi anizkoitza izan daitekeela aintzat hartzen.

Niri ere froga ugari egin zizkidaten: erresonantzia, puntzio lunbarra, likido anmiotikoa atera zidaten eta kalanbreen froga ere egin zidaten gorputz-adarrak ondo dauden jakiteko. Erresonantziako orbanak kenduta, gainerako froga guztietan ez zuten ezer aurki-

tu. Hori dela eta, esklerosi anizkoitza izan nezakeelakoan urtero egiten zizkidaten azterketak. Horrela eman nituen hiru urte.

Iaz, urtero bezala, neurologoarekin nuen kontrol azterketara joan nintzen. Kasualitatez bakarrik joan nintzen kontsultara orduko hartan. Neurologoak atetik sartu bezain laster bakarrik ote nentorren galdetu zidan, orduan jakin nuen zerbait gaizki zihola.

Azken erresonantzia lesio berri bat topatu didate burmuinean, orban zuri berri bat agertu zen. Esan zidaten ziurtasunez kontsideratu zitekeela esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa, eta medikazioa hartzen hasi nintekeela.

Garaiz diagnostikatu didate gaitza. Medikazioak ez du ekidindu nik gaitza pairatzea, baina nerbio-sistemaren degenerazioa motelduko du, gaixotasunaren azelerazioa murriztuz.

Hasieran beldur handia izan nuen. Nire ingurukoek baita ere. Ez genekien zer ari zen gertatzen, zer gertatuko zen... Hartzen ditudan medikamentuak nahiko fuerteak dira, asko kostatu zait hauekara ohitzea. Shock moduko bat eragiten dute nigan; 20 minutuko kontua da, baina zaila izan da gorputza ohitzea.

“Uste dut bizitzak oztopo berri bat jarri didala, eta, eguzkiloreak bezala, oztopoei aurre egitkeo gaitasun hori daukadala”

Ez zen erraza izango gure gaixotasunaren berri ematea, ezta?

Nire gertukoei hasieratik kontatu diet, galdetzen zidatenean ere ez nuen gordetzen, baina orain arte, gertukoek zirkulu horretatik

elkarrizketa

kanpo, nahiko isilpean mantendu dudan zerbait izan da. Kontatzen duzun momentutik onartzen ari zara badagoela zerbait gaizki, eta niri amorrua ematen zidan horrek.

Gaixotasuna ezagutzera eman eta ikerketarako proiektua abiatu duzue orain: Eskerrak ahulak garen. Nondik dator ideia?

Kasuak bultzatu gaitu proiektua garatzera. Oso lagun min batekin, Naroarekin, joan nintzen Tarragonara oporretan udan. Gaiaz hitz egiten ari ginela berak proposatu zidan proiektuaren ideia: "Ainhua zergatik ez duzu zerbait egiten? Agian jende asko lagundu dezakezu zure esperientzia kontatzen. Zergatik ez dugu proiektu bat garatzen?".

Horrela hasi zen guztia. Mirenekin, gure beste lagun min batekin, partekatu genuen ideia, eta forma eman genion egitasmoari.

Esklerosi anizkoitza zer den zabaltzea eta ikerketarako dirua lortzea jarri genuen helburutzat, nire kasu pertsonala elkarbanatuz. Lehen esan bezala, nik beldur handia izan nuen hasieran. Orain lasaiago nago, asko irakurri dut, asko informatu naiz. Eta, uste dut, nik igaro nuen egoera berdinean dauden asko lagundu ditzakegula.

Nire kuadrillako lagun bat, Izas-

“Gertuko en lasaitasunak ere asko lagundu dit. Ez naute gaixo baten modura tratatzen. Eurak lasai badaude ni askoz lasaiago nago ere”

kun, arduratu da logoaz. Eguzki lorea eta xingola laranja uztartu nahi genituen iruditegian. Xingola laranja esklerosi anizkoitza irudikatzen du. Eguzkilorea, aldiz, Euskal Herriko sinboloa da, gaitzetaik babesteko ateetan eskegitzen dena. Erresilentiaren sinbolo ere bada eguzkilorea; uste dut bizitzak oztopo berri bat jarri didala, eta, eguzkiloreak bezala, oztopoei aurre egiteko gaitasun hori daukadala.

Nondik ekingo diozue ikerketarako dirua biltzeari?

Zerbait sinplearekin hastea erabaki dugu. Logodun kotoizko kamistea zuriak eta tote-bag poltsak salduko ditugu. Horrez gain, kirola egiteko kamiseta teknikoak kaleratu ditugu ere. Azken hauek garestiagoak izango dira, eta demandaren arabera ekoiztuko ditugu.

Proiektua oso txikia da. Etorkizunera begira oraindik ez dakigu zer egin, baina jaso dugun erantzuna izugarria izan da. Babes handia jaso dugu, eta horrek asko motibatu gaitu. Sorpresaz harripatu gaitu hain harrera zabalak. Bagenekien gertuko en artean eragina izango zuela, baina oso urrun iritsi gara halako batean. Jasotako babesa asimilatzen ari gara oraindik.

Saltzeko produktu berriak atara nahiko genituzke epe laburrean, diru gehiago bildu eta ikerketan lagundu ahal izateko. Oraindik ez dugu erabaki, baina Euskal Herriko elkarte edo ikerketa talde batera bideratuko dugu dirua. Baditugu batzuk buruan, baina baliteke behar handiagoa duten lan-talde txikiagoak egotea.

Kirola egiteko kamistea teknikoak salduko dituzuela aipatu duzu. Garrantzia berezia dauka kirolak gaixotasunari aurre egiteko prozesuan?

Egia da ni beti izan naizela kirolaria, betidanik egin dut ariketa fisikoa. Baina diagnostikoa eman zidatenean azpimarratu zidaten kirola eginez gero eta gorputza landu eta maitatuz gero, errazago aurre egin dakiokela esklerosi anizkoitzaren brote bati.

Mentalki ere asko laguntzen dit kirola egiteak. Ziurgabetasuna erabatekoa da esklerosi anizkoitza duzunean. Kirola praktikatzean eta ikustean nire gorputza gai dela erantzuteko indar handia ematen dit.

Zure esperientzia pertsonala elkarbanatu nahiko zenuke ere, egoera berdinean daudenak lagundu ahal izateko.

Bai, nire egoera berdinetik iga-

rotzen ari den edonork nirekin hitz egin nahi badu, uste dut gauza asko banatu ditzakegula, eta elkarri lagundu. Gaixotasunak erakutsi dit esperientziak beste modu batera bizitzen "Hamaika aurpegien gaixotasuna" da esklerosi anizkoitza, ez dakizu inoiz noiz eta nola azaleratuko den. Baliteke egunen batetik betsera gorputzeko mugikortasuna edota ikusteko gaitasuna galtzea. Horrek hasieran egundoko beldurra ematen zidan, baina onartu dut nik ez dudala gaixotasuna kontrolatzeko gaitasunik. Egunak eta uneak gehiago baloratzen ikasi dut.

Diagnostikoa jaso nuenean blokeatuta geratu nintzen, beldur handiarekin. Esklerosi anizkoitza duen beste lagun batengana jo nuen, eta honek argi esan zidan gaixotasunak ezin zuela nire bizitza gelditu. Behin bizi gara bakarririk, eta topera bizi behar dugu.

Uste dut horrelako egoera baten aurrean egokiena ondo informatzea dela, ondo jakitea zer den gerta dakiguna, eta, noski, profesionalengana jotzea, inolako zalantzarik gabe. Laguntza eskatzea ezinbetsekoa da.

Gertuko en lasaitasunak ere asko lagundu dit. Ez naute gaixo baten modura tratatzen. Eurak lasai badaude ni askoz lasaiago nago ere.



erreportajea



Dilema zaharrek aukera berriak

Kontrakoa iruditu arren, behera egin du azken urteetan ospatzen diren ezkontzen kopuruak. 1970eko hamarkadatik hona %65 gutxiago dira eskualdeko ezkongaiak. Eustaten azken estatistiken abagunea probestu dugu Aiaraldeko ezkontza eta familia erduei erreparatzeko.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Akaso jasoko zenuen batean edo bestean parte hartzeko gonbita. Ziurrenik Instagrameko story-ak ikusteaz gogaituko zinen honezkero. Edo baliteke zu izatea protagonista. Alde batean edo bestean egon zaren horri, zorionak; aurtengoan ere biziraun diozu ezkontza sasoiari.

Ingurura begiratuta, badirudi etengabe haziz doan fenomeno delako ezkontzena, geroz eta jende gehiago ezkontzen dela. Horrek kezkatzen bazaitu, egon zaitetz lasai, datuek kontrakoa adierazten dute. Baliteke soilik, geroz eta pertsona ezagun gehiago ezkontzea, ez besterik.

Ezkontza kopuruak behera

Hori adierazten du Eustatek argitaratutako azken neurketak. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %7 egin zuten behera ezkontzek 2023an, aurreko urteko datuekin alderatuta. Orotara 7.022 ezkontza egon ziren Euskal Autonomi Erkidegoko hiru lurraldetan, 2022an baino 534 gutxiago.

Ezkontzaz inguratuta igaro dituzun azken hilabete hauen ostean, hori nola den posible galdetuko diozu zure burari. Pandemiaren geroztik mota honetako ospakizunen gorakada bat egon da bai, baina soilik 2020an ezkontza gehienak bertan behera gelditu zirelako. 2019arekin alderatuta %2,8 egin dute behera ezkontzek.

Aiaraldean ere agerikoa da bilakaera hori. Eta are nabariagoa da beherakada XX. mendeko azken hamarkadetakoa dautekin alderatuz gero. Iaz 192 izan ziren ezkontza ziren eskualde-

ko bederatzi udalerrietako pertsonak, 2022an baino 53 gutxiago. 1976an, ordea, 537 izan ziren ezkontzea erabaki zuten aiaraldearrak.

Ohitura aldaketak

Ezkontzen nolatasunak ere eboluzionatu egin du azken 60 urteetan. Geroz eta gutxiago dira elizatik egiten diren ezkontzak. Kontrara, azken hamarkadetan ezkontza zibilek hartu dute pisua. Eustaten datuen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ezkontzen %90,5 zibilak izan ziren. 1993an, ordea, %26,9 ziren zibilak soilik.

Ezkontzaren batzuetan beste adinak ere bilakaera izan du azken urteetan. Geroz eta nagusiagoak dira ezkontzea erabakitzen duten pertsonak. Gizonezkoen kasuan 38,8 urte dira ezkontzeko batzuetan beste adina, emakumezkoen kasuan 36,7 urte. 1970 edo 1980ko hamarkadetan, aldiz, ohikoena 30 urte bete aurretik ezkontzea zen, 27 urterekin batzuetan beste.

Hamaika familia

Ohiturak gorabehera, garaiak aurrera, iruditegi kolektiboan sakon barnetatuta dago ezkontzea beste alternatibarik ez dagoela gizarte honetan ganoraz eta artez enkajatzeko. Baina, datuek bezala, eguneroko errealtateak ere erakusten du hori ez dela guztiz egia.

Hamaika dira eskualdeko herri eta kaleetan aurkitu ditzakegun familia eta harreman ereduak: inoiz ezkontu ez direnak, guraso bakarrek familiak, errege-etxearen tamainako ezkontza ospatu zutenak, bikote harremanik ez dutenak... zenbat buru hainbat aburu.

ELIZAN OSPATUTAKO EZKONTZEK BEHERA EGIN DUTE EZKONTZA ZIBILEN AURREAN. EGOERA HORREN INGURUAN GOGOETATU DU **EMILIO PEREZ** URDUÑAKO APAIZAK.

Datuei erreparatuta ezkontza kopuruak behera egin du azken hamarkadetan. Zuk ere nabaritu duzu jaitsiera hori?

Gutxi dira gaur elizaz ezkontzen direnak, eta gutxi horien artean badira lehendik ezkontza zibila eginikoak.

Nola aldatu dira ezkontza ohiturak azken urteetan?

Gaur bikote gehienak ezkontza bizitza egiten hasten dira, inolako ospakizunik gabe. Formalki ezkondu egiten dira seme-alabei begira, bikotekideek 30 urteak ondo pasatuta/gainditutadituztela. Aspaldian ezteietan etxeakoak eta adiskide gutxi batzuk biltzen ziren. Gaur ezkontzetan ezkongaien lagunak dira gehien-go nabarmena.

Orain dela 100 urte, neskek 20 urtetik bueltan eta mutilek 24 urtetarako ezkontzen ziren. Erditzean ama asko hiltzen zirenez, oso arruntak ziren bigarren ezkontzak. Ezkonduen elkarbizitza, batez beste, 12 urtekoa zen.

Gaur egun elizatik ezkontzea erabakitzen duten bikoteen kasuan, zein da euren motibazioa: fede erlijiosoa edo tradizioa mantentzea?

Ezkontzeko arrazoiak askotarikoak dira. Kristau batek ez du ezkontza egingo bakarrik sinestuna delako; aldi berean hor izango dira maitemina, elkarbizitza pozgarria, onura ekonomikoa, burujabetza, haurrak izateko itxaropena. Jendaurreko ezkontza batek, zibila zein erlijiosoa izan, adierazten du zein garrantzi handia duen bikotearentzat eta etor daitezkeen seme-alabentzat.

Bestalde, bikoteen haustura oso mingarria ohi da. Adi egoteko moduko abisua da. Aiaraldeko ezkon-aurreko ikastaroetan, bikote-komunikazioaz ekarpen baliotsuak egiten dituzte.

Ezkontza gutxi egiten dudan garai honetan, badakit zein polita izan den senar-emazte askoren bizitza. Bataioetan, zilarrezko edo urrezko ezteietan, bai eta hileta elizkizunetan ere, hurbiletik eta ezin argiago sumatu dut nolako esperientzia sakona eta aberatsa bizi izan duten bikote askok: beti lan ugari, une latzak, gozotasun paregabeak eta maitasun bizi-bizia urteen buruan. Eskerrak ematen hasi eta luze jo dezakete atseginez beterik.

Biblian Jainkoaren irudi mamitsuenak senar-emazteen maitasunetik hartuak dira. Maitasun samurrak jotako esperientzia islatzen du Jesusek Ebanjelioan. Frantzisko Aita Santuak 2016an "Maitasunaren poza" entziklika argigarria idatzi zuen familien gorabeherez. Amaitzeko, esaera zahar bat: "Maitasuna egiazkoa non, hantxe Jainkoa".



DUELA HAMAR URTE EZKONDU ZIREN **XANDRA LEON** ETA **XABI GOITIA** LAUDIOARRAK. EZKONTZA OSPAKIZUN ERRALDOIA EGIN ZUTEN, 250 GONBIDATUREKIN.

Hasieratik izan zenuten argi ezkontza ospakizun handia egingo zenuela?

Xandra: Elkarrekin hasi ginenetik argi geneukan ezkondu egingo ginela, eta ezkontza hori ahalik eta handiena izan behar zuela. Ezkondu ginenean nik 26 urte nituen, eta Xabik 33. Nire belaunaldikoen ezkontzen zen lehenengoetarikoa izan nintzen ni, eta gerora ez dira askoz gehiago ezkondu. Ni eta nire inguruak oso gogotsu geunden.

Elizatik ezkondu zineten, zerk bultzatuta?

Xabi: Tradizioa jarraitu nahi genuen. Txikitatik bizi izan duguna izan da, eta ezkondu ginenean udaletxean egitea ez zen oso ohikoa.

Xandra: Laudioko elizan egi-teak ere ilusioa egiten zigun. Herri erdian dago, jendea etor zitekeen elizkizuna ikustera...

Xabi: Hor kontua da nik Gardeako elizan ezkondu nahi nuela, eta Xandrak Landaluzen. Laudion ezkontzea erabaki genuen, erdibidean dagoelako (barreak).

Ezkontza ospakizun erraldoia izan zen zuena.

Xandra: 250 pertsona gonbidatu genituen. Asko kostatu zitzaigun denak elkartzeko toki bat topatzea. Inguruko jate-teekek ez zuten hainbeste pertsonentzako espaziorik, eta guk ez genituen gonbidatuak bi areotan banatu nahi.

Xabi: Bi urteko aurrerape-narekin gonbidatu genuen jendea, eguna bai ala bai gorde zezaten. Egundoko lana hartu genuen guztia antolatzen.

Xandra: Gure kabuz antolatu genuen guztia, ez genuen orain hain ezagunak diren *wedding plannerrik* kontratatu: Gu arduratu ginen dekorazioaz, gonbidapenak diseinatzeaz, autobusak kontratatzeaz... batukada bat ere kontratatu genuen. Guztia gure kabuz.

Xabi: Karroza bat lotu nuen, bi zaldirekin, Xandrak herrian zehar buelta bat emateko.

Xandra: Egundoko festa antolatu genuen. Jende gazte asko elkartu ginen. Bi ezkontza berri ateratu ziren gure ezkontzatik.

Zeresana sortuko zuen horrelako ezkontza batek herrian.

Xabi: Gatikako jatetxetik bueltan, egunsentira arte luzatu zen jaia herrian. Hainbat tabernetan egon ginen eta jende nahikotxo batu zen.

Xandra: Eliza atarian ere jende asko elkartu zen. Flipatu egin nuen; asko eta asko ez ziren ezkontzako gonbidatuak!

Zenbat diru utzi zenuten ezkontza antolatzen?

Xandra: Dirutza utzi genuen ezkontzan. Ez dakit zehazki zenbat izango zen, baina 47.000 euro inguru.

Xabi: Janarian asko gastatu genuen, berriz ospatzekotan hortik murriztuko nuke. Azkenean jendeak festa nahiago du asko jatea baino.

Errepikatuko zenukete?

Xandra: Zalantzarik gabe! Egundoko jaia antolatuko nuke berriro! Aurten 10 urte bete dira eta, askok galdetu digute ea ez dugun errepikatu behar. Jendeak oso oroitzapen ona dauka.

erreportajea

MARTA LA LAGUNA ETA ANA ESNARRIAGA

URDUÑAN EZKONDU ZIREN LEHENENGO BI EMAKUMEAK DIRA. EZKONTZA ZIBILA IZAN ZEN, ETA LAGUNARTEKO OSPAKIZUNA EGIN ZUTEN.

Urduñako sexu bereko pertsonen arteko lehenengo ezkontza izan zen zuena. Nola gogoratzen duzue unea?

Marta: Duela bederatzita urte ezkondu ginen. Oso erraza izan zen prozesu guztia. Ezkondu gintuen zinegotziak erraztasun asko jarri zizkigun. Asko inplikatu ziren Udaletik, Urduñako lehenengo ezkontza homosexuala zela jakinda. Baina naturaltasun handiarekin, bai udaletxean eta baita epaitegian ere.

Ana: Normalizatuta dagoe la diogu, baina oraindik ere zeresana sortzen dute gurea bezalako ezkontzek. Urduñan zalaparta pixkat sortu zen. Batez ere jendeak emakume bat ikusi zuenean udaletxe atarian beste ezongaiaren zain. "Nola da posible emaztea lehenago iritsi izana!", esaten zuten askok. Ditxosozko protokoloak. Ordura arteko estandar asko apurtu genituen (barreak).

Marta: Zeresana bai, baina zeresan sanoa! Herrietan, ezkontza orok du zeresana.

Urte askoren osteko borroka-erabaki gauen. Bat gatoz biak paper batek ez duela ezer suposatzen, sentimenduak dira harremana sortzen dutenak, baina eskubide batzuk aitortuak nahi badituzu, nahitaez behar duzu zer-bait sinatu.

Marta: Naturaltasunez eta pozik bizi izan genuen. Horrelako ezkontzak normalizatzeagaitik pozik, eta jende gehiagok urrats berdina eman zezan gogotsu.

Beti izan zenuten argi ezkondu nahi zenutela?

Ana: Ez. Nik beti esan nuen paper batek ez zuela ezer aldatuko. Ez nuen ezkontzeko asmorik. Behin, ordea, Marta ospitaleratzuten, eta niri ez zegokidan inolako baimenik. Ni ez nintzen lanera joan, nire nagusiari azaldu nion gertatzen zena eta ulertu egin zuen. Baina kontrakoa gerta zitekeen, eta ni kaleratu. Orduan hasi ginen pentsatzen agian komeni zitzaigula dokumenturen bat sinatzea.

Marta: Izatezko bikote izateko paperak bete genituen. Behin hori eginda, ezkontzea eta gertukoekin ospakizun txiki bat egitea

erabaki genuen. Bat gatoz biak paper batek ez duela ezer suposatzen, sentimenduak dira harremana sortzen dutenak, baina eskubide batzuk aitortuak nahi badituzu, nahitaez behar duzu zer-bait sinatu.

Ospakizun handia izan zen?

Marta: Ez genuen ospakizun ikusgarririk nahi, ez. Baina bai jai-egun bat, gertuko senide eta lagunekin. Lagunek sorpresa bat edo beste prestatu ziguten: Limusina bat kontratatu zuten, eta lagun txirrindulariek pasabidea osatu zuten udaletxeko atarian.

Ana: Bazkaria Murgako jatetxe batean egin genuen. Ez zen ohiko bazkaria izan. Zutik hartu genuen mokadutxo eta jaia ospatu genuen gero.

Marta: Guk geuk nahi genuen ezkontza izan zen, eta hori da garrantzitsua. Askok egundokoak prestatzen dituzte ohitura hori delako. Baina guztiak dira egokiak, izan bost lagunekin ospatutakoak edota sinatzea beste-rik ez direnak.



AMAIA RUIZ ETA ALBERTO BAKERO FAMILIA BAT OSATZEA ERABAKI ZUTEN, INOLAKO PAPERIK SINATU GABE. HAIEN HAUTUAZ MINTZATU DIRA.

Ez dago zertan ezkondu beharrik familia bat osatzeko, zuek zarete horren adibide.

Gu gure semeen gurasoak gara, besterik ez. Ez dugu elkarrekin sinatutako paperik. Dokumentu bakarra gure familia liburua da. Hiru seme ditugu; 21, 10 eta 11 urtekoak.

Zerk bultzatuta hartu zenuten ez ezkontzearen erabakia?

Modu naturalean. Hasieratik izan genuen argi ez genuela ezkontzarik nahi. Elkarrekin bizitzea erabaki genuen, eta seme-alabak izatea, besterik gabe.

Bikote harremana egiaztatzen duen dokumentu baten faltan, zailtasunik edo oztoporik bizi izan duzue familia aurrera ateratzeko?

Orokorrean ez dugu aparteko oztoporik izan inoiz. Nire bikotearen lanean badakite familia bat osatzen dugula, eta nolabaiteko konfiantza ariketa egin dute niri edozer gauza gertatzekotan berak baimenak eskatu ahal izateko. Nukleo familiar bat garena onartzen dute. Imajinatzen dut beste enpresaren batean ez litza tekela hain erraza izango egoera ulertaraztea.

Nik harategi batean egiten dut lan, eta pandemia garaian lanik gabe nengoenean, nire senarrak ezin ninduen karga bezala aitortu laguntza-ekonomikoak jasotzeko. Etorkizunean ere zailtasunak izango ditugu alargun geratzen bagara.

Uste dut aurrerapausoak eman behar dituela gizarteak, eta gu-rea bezalako familia ereduak onartu eta normalizatu.



AMA BAKARRA DA **BEA IBAÑEZ** OROZKOARRA. AITORTZA FALTA ETA OZTOPO LEGAL UGARIRI EGIN BEHAR DIOTE AURRE BERE BEZALAKO FAMILIEK.

Ezkontzak eta familia eredia konkretu bat hain hegemonizatuta dagoen gizarte batean, erraza izan zen ama bakarria izateko hautua?

Ez nuke erraza edo zaila izan zenik esango; besterik gabe, horrela suertatu zen. Aurretik egon izan naiz bikote harremanetan. Ama izateko nahia piztu zitzaizdanean, ordea, ez nuen bikoterik, baina aurrera egin nuen, nire nahia hori zelako.

Aipatu duzu inoiz estigmatizatuta dagoela ama bakarria izatea.

Duela zortzi urte, haurra izan nuenean, nahikotxo ginen egoera berdinean geunden amak, eta uste dut geroz eta normalizatuago dagoela. Baina, hala eta guztiz ere, badirudi beti egon behar dugula azalpenak ematen. Gizartearen kontzientzian oraindik zaila da bikoterik ez duen ama bat irudikatzea, badirudi hutsune bat dugula, zerbait dugula faltan.

Estatu mailan *Madres solteras por elección* ama-bakarren elkarrekin da, eta hemen,

EAEn, delegazioa daukagu. Erreferente potentea da, elkar babestu eta laguntzeko, maila emozionalean zein legalean. Pila bat gara. Lan egiteko gogo handiarekin egin dugu bat: Hezkuntza arloan gurea bezalako familiei ikusgarritasuna emateko, gure seme alaben eskubideen alde...

Arazo legalak aipatu dituzu. Zer suposatzen du horrek zurea bezalako familientzat?

Guraso-baimenekin oso agerikoa da hori. Familia eredu hegemonikoetan 16 asteko baimen bana daukate bi gurasoek; 32 aste orotara seme-alabarentzat. Gure kasuan baimen horiek erdira murrizten dira, eta horrek kalte zuzena eragiten du gure seme-alabengan. Gure seme alabek ez dute 32 asteko baimen horietaz gozatzeko eskubiderik, ala? Borroka handia egin da horren alde, eta badaude gure alde egin duten sententzia juridikoak, baina oraindik ez dago erabat aitortua.

Bestelako kasu asko eta asko daude. Nire kasuan, esaterako, familia liburuan hutsune bat ja-


rri zuten nire izenaren azpian. Azaldu behar izan nien ezetz, ez jartzeko hutsunerik, nire alabak ez zuelako aitarik. Tramite askotan ez dago aurreikusita haur batek guraso bakarria izatea, eta azalpenak emateko deitzen aritu behar gara. Pixkanaka badoaz hori aldatzen, baina lan asko falta da.

Kasu askotan babesgabe aurkitzen dugu gure burua. Ama bakar asko pobrezia mugatik oso gertu bizi gara. Pandemia garaian oso agerikoa izan zen hori; lanik gabe geratuz gero oso zaila zen familia aurrera ateratzeko baliabideak topatzea. Oso hedatua dago ama bakarrok diru-laguntzak jasotzen ditugula, baina hori gezurra da. Jasotzekotan, pobrezia mugatik gertu egoitegatik jasotzen dira laguntzak. Familia ugariekin parekatzea da gure eskaria. Izan ere diru-sarrera gutxiagorekin hezi eta zaindu behar ditugu seme-alabak. Bide horretan Familia Monoparentalen Legea aplikatzea eskatzen dugu, bai eta tratamendu fiskal bidezkoago bat ere.



Ezkontzai kopuruaren eboluzioa 1975etik gaur egunera Aiaraldean

Iturria: EUSTAT



↓ **%65**

Euskal Autonomia Erkidegoan %65 jaitsi da ezkontzaien kopurua 1975etik 2022ra.

2022-2023

Ezkontza kopuruak %7 egin du behera azken urtean EAEn.



10 ezkontzatik 9 ezkontza zibila dira (%90,5).



Ezkontzaien batz besteko adina 10 urte egin du gora azken 1970etik.

agenda

2024/11/06
2024/11/20



Zolloko eta Lezamako jaiak girotuko dute azaro hasiera

Haurrentzako jolasak, herri bazkariak, txapelketak, kontzertuak... denetarik ekintzez gozatzeko aukera egongo da datorren asteburuan Zolloko eta Lezaman, bi herri horietako jaiak ospatuko baitira.

Ohiko egitarauak mantenduko dituzte bi tokietan. Zolloko ostiralean (azaroak 8) hasiko da festa. Arratsaldeko zortzietan jaurtiko dute txupinazoa, eta Elortegi Anayen eta Orkresta Elektrotunaren emanaldiak egongo dira jarraian.

Larunbatean, aldiz, goizetik gauera arte luzatuko da egitaraua, ondorengo ekintzekin: puzga-

rri eta tailerrak Kirikiño aisialdi taldearen eskutik, Arguiako Jasoka herrikirol taldearen erakustaldia eta Nafarroa Kanta Taldearen emanaldia. Gauean, aldiz, Alarma Morea, Beranduegi eta DJ Pipi igoko dira frontoiko oholtzara.

Aurreikusitako datuekin, larunbatean bertarutuko da jende gehien Zolloko, baina jaiak ez da egun horretan amaituko. Kituren emanaldia egongo da igandean, Etxebarria aita-semeen emanaldia eta bertso parrillada astelehenean eta hurrengo larunbatean (azaroak 16) ohiko herri bazkariaren bueltan bilduko dira bizilagunak.

Lezaman, aldiz, asteburu bakarrean bilduko dituzte jarduera guztiak. Larunbatean (azaroak 9) hasiko da jaiak, ziklo-krosarekin. Jarraian egongo dituzte bazkaria, dantzaldia, herri jolasak, Etxebarria aita-semeen emanaldia eta afaria. Gaua gurtzeaz, aldiz, Belgorri talde amurriarra, Gauegun erromeria eta Blessive Dja arduratuko dira. Igandean mendiibilidietan hasiko dute eguna; eta ondoren egongo dituzte meza, zozketa, 65 urtetik gorakoentzako bazkaria eta mus txapelketa. Astelehenean, aldiz, briska txapelketa eta txokolate jana egongo dituzte, Martin Deuna ospatzeko.

MUSIKA

11.07 Osteguna
20:00 LAUDIO
CERDITO ROSA TOUR
Keska taberna

11.08 Ostirala
21:30 LAUDIO
LUIS VILEN BIRA
AKUSTIKOIA
Kulturlab

11.09 Larunbata
19:00 LAUDIO
ONE MUSIKALA
Antzeziana
Solastiar eta ArteOnek
dinamizatuta
Kasinoa

11.09 Larunbata
20:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
NAFARROA KANTA TALDEA
Zolloko Jaiak
Zollo

11.09 Larunbata
21:30 LAUDIO
EALAIN ETA SEVICIA
Metal kontzertuak
Sorgin Taberna

11.09 Larunbata
22:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
ALARMA MOREA,
BERANDUEGI ERROMERIA
ETA DJ PIPÍ
Zolloko Jaiak
Zollo

11.09 Larunbata
23:30 AMURRIO
BELGORRI, GAUEGUN
ERROMERIA ETA DJ
BLESSIVE
Lezamako Jaiak
Lezama

11.10 Igandea
13:00 ARRANKUDIAGA-ZOLLO
KITTU BASQUE STREET
FOLK
Zolloko Jaiak
Herriitik

11.16 Larunbata
10:00 AMURRIO
AIARAKO III. TRIKITIXA
TOPAKETA
Gaztetxea

11.07 Osteguna
19:30 LAUDIO
NATURAK ESKAINITAKOIA
Saio irekia Aitziber
Duarteren eskutik
Faktoria

11.08 Ostirala

11.09 Larunbata
18:00 OKONDO
BOLA JOKALDIA
Okondoko bolatokia

11.10 Igandea
16:30 LAUDIO
HOCKEY: ESKOLA ETA
FAMILIA JARDUNALDIAK
Granja kiroldegia

IKASTAROAK

11.07 Osteguna
17:00 LAUDIO
KULTURA DIGITALEKO
LANTEGIAK: STOP-MOTION
PELIKULAK
Tailerra dohainik da, baina aurretik eman behar da izena 677 566 245 Whatsapp zenbakian
Kultur Etxea

11.08 Ostirala
18:00 LAUDIO
CHI KUNG TAILERRA
Tailerraren lehenengo eguna, Idoia Eizmendiren eskutik
Lezeaga Aretoa

11.09 Larunbata
17:00 LAUDIO
TAILER BIZIAK: BATUKADA
TAILERRA
Aiarandreak taldearen eskutik
Faktoria

11.10 Igandea
10:00 URDUÑA
TINDAKETA
EKOLOGIKOAREN TAILERRA
TOKIKO PRODUKTUEN
DASTAKETAREKIN
Irteerari buruzko informazio gehiago Ordunaturismo.com
Alondegia

11.14 Osteguna
17:00 AMURRIO
KULTURA DIGITALEKO
LANTEGIAK: 3D
INPRIMAGAILUAK
Tailerra dohainik da, baina aurretik eman behar da izena 677 566 245 Whatsapp zenbakian
Kultur Etxea

JARDUNALDIAK

11.09 Larunbata
11:30 LAUDIO
ZAHARRA ERRE ETA
BERRIARI SU, LAUDIOKO II.
JARDUNALDI POLITIKOAK
Suberri Gazte Asanblada
Orbeiko Etxea

11.16 Larunbata
09:30 LAUDIO
EMAKUME* ABERTZALEON X.
TOPAKETA FEMINISTAK

elkarrizketa

“Borrokan jarraituko dugu zerrenda ofizialki publikatu eta bertan gaudenoi formakuntza eta lana eman arte”



SUHILTZAILE GAINDITUAK HASERRE ELKARTEKO KIDEA DA **JOSU ARTETXE ESPERANZA** (Aiara, 1995) DOZENAKA SUHILTZAILEREKIN BATERA, ZIURGABETASUN EGOERA BIZI DU 2022KO OPOSIZIOETAKO ARAUDIAN EGIN NAHI DUTEN ALDAKETA DELA ETA.



Testua eta argazkiak
Aimar Gutierrez Bidarte

Suhiltzaile Gaindituak Haserre elkarteko kidea zara. Zergatik diozue haserre zaudetela?

Haserre gaude 2022an Araba eta Gipuzkoako suhiltzaileak langilez hornitzeko oposizioa gainditu genuelako baina lan-poltsak osatu gabe jarraitzen duelako, azterketa prozesu erdian araudia aldatzen saiatu direlako. Ohikoan, oposizio publiko batean, azterketa teorikoa, fisikoa eta psikoteknikoa egin behar dituzu, merituekin (lan esperientzia eta tituluak) batuz lortzen duzun puntuazioaren arabera zerrenda bat sortzen da, bertan, duzun postuaren arabera sailkatzen zaitutze, eta plaza lortu edo bakanteak kubritzera pasatzen zara. Kontua da zerrenda hori konformatzerako orduan saiatu direla azterketa gainditu genuenak azterketa suspenditu baina lan esperientzia gehiago zutenen atzetik jartzen. Horretarako oposizio prozesu erdian lan-poltsen araudia aldatzen saiatu dira.

Araudia aurretiaz zehaztuta zuen oposaketa prozesu baten erdian saiatu dira araudia aldatzen beraz. Nork bultzatu du aldaketa hori?

Arabako Foru Aldundiak eta alde sindikalak. Hasieran ELA eta LAB agertu ziren aldaketa horren alde. Haiekin bildu ostean, LAB gure alde lerratu zen, UGT, ESK eta CCOOekin batera. Gure borroka babesten zutela adierazteko, testu bateratu bat erregistratu genuen Arabako Foru Aldundian.

“Urriaren 17an agerraldia egin genuen Arabako Batzar Nagusietan”

Elkartea sortu duzue zuen eskubideen alde borrokatzeko. Lortu duzue erantzunik?

Mobilizatzeaz gain sindikatu eta alderdi politikoeekin batzartu gara, EAJk izan ezik alderdi guztiek adierazi digute euren babesa. EH Bilduk eta Podemosek eskatuta urriaren 17an agerraldia egin genuen Arabako Batzar Nagusietan, eta ondoren, Jone Berriozabalek, suhiltzaileen kontuaz arduratzen den diputatuak, alderdi ezberdinen galderak erantzun zituen. Bertan esan zuenaren arabera asmoa da, araudia dagoen bezala errespetatzea, lan-poltsa osatzea eta lan-poltsan gaudenoi formakuntza eta lana ematea. Hori da daukagun azken berria, baina oraindik ez dago ezer paperean eta poltsak osatu gabe jarraitzen du. Une honetan plaza sinatuko dutenak ari dira formazioa jasotzen, hau otsail ingururako amaituta egongo da eta besteok ez dakigu ezer. Ziurgabetasun eta ezjakintasun egoera totalen gaude oposaketa prozesu osoa gainditu ostean, dagokigun lana egin ahal izango dugun jakin gabe.

Konforme zaudete Berriozabalen adierazpenekin?

Bada aurrerapauso bat baina guk borrokan jarraituko dugu zerrenda ofizialki publikatu eta bertan gaudenoi formakuntza eta lana eman arte.

elkarrizketa

Zenbat zarete egoera horretan zaudetenak?
164 pertsona gara kaltetuak.

Eta zerk suposatzen du horrelako prozesu luze eta ziurgabeak maila pertsonalean?

Egundoko ezjakintasunean bizi gara. Berez, gainditzeak eta lan-poltsan sartzeak suposatzen ditu berme minimo batzuk, normalean formakuntza eta agian lana, baina guk, orain, ez dakigu ezer. Gogorrena, zerbait itxaroten egotea da, helduko denaren ziurtasunik izan gabe. Denbora luze daramagu azterketak prestatzen. Honek esfortzu eta sakrifizio handia suposatzen du, maila pertsonal, familiar zein ekonomikoan; batzuek ikasi eta entrenatu ahal izateko lana utzi dute edo bikotearengan delegatu dute familiaren zaintza, besteak lanean eta oposaketaren prestakuntzan egon dira murgilduta, lagunak ikusteko aukera handirik gabe...

Suhiltzaileen artean gatazka sortu du honek?

Oposaketaren oinarrietan lan-poltsa osatzearen ardura Arkauteko zuzendariak du, historikoki, baina, Aldundiek kudeatu izan dituzte haien lan-poltsak. Orain hiru administrazio daude nahastuta eta lanpoltsa sortu gabe jarraitzen dute.

“Gogorrena, zerbait itxaroten egotea da, helduko denaren ziurtasunik izan gabe”



kultura

Entzungai dago Izatefaltsuaren Autosuntsipena lana



Izatefaltsua taldeko gaur egungo kideak. **Izatefaltsua**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Plataforma digitaletan entzungai dago Izatefaltsuaren azken lana, *Autosuntsipena* izenekoa. Amurrioko metal talde beterranoak lau kanta bildu ditu EPan, denak euskarazko letrekin. Grabaketa berri honekin, lau dira Izatefaltsuako kideek azken 16

urtetan plazaratutako lanak: *Adi!*, *Zaratak agindu dezan!* eta *Amorru bizia*. Lan berria plazaratuta, kontzertuak emateari ekin nahi diote taldeko kideek. Horretarako, eurekin harremanetan jartzeko gonbita luzatu diete musika areto eta bestelako espazioetako kideei, izatemundua@gmail.com helbidearen edo 605 736 977 telefonoaren bidez.

Denok gara norbait erakusketa aurkeztu dute, Amurrioko hiru emakumeren erretratuekin



6x4 metroko eta 5x5 metroko neurrikoak dira irudiak **Aiaraldea.eus**

Testua
Altor Aspuru Saez

Urriaren 31n aurkeztu zuten udaletxean *Denok gara norbait* erakusketa. Berez, osatzen duten hiru argazkiak duela astebete baino gehiago jarri zituzten, baina ostegunean erakutsi zituzten osorik: "Denok gara norbait" eta "Todas somos alguien" mezuekin.

Proiektuaren atzean Maied Urrutia dago, eta argazkien egileak Bruna Aldama, Ainara Robles eta Iratxe Rotella izan dira. Hirurak dira Urrutiaren ikasleak Kultura Etxeko argazkigintza ikastaroetan.

Lehiaketa Artistikoaren tokia

Proiektu honek Amurrioren egiten zen Lehiaketa Artistikoaren tokia hartu du. Izan ere, Udalak azaldu duenez, "egitasmo horreke zidutokiko artistak bultzatzen eta hementz sortzaileak babestea da Kultura Planaren asmoa". Abiapuntu horrekin, Kultura Arloak bestelako ekin-

tza bat pentsatu zuen eta Maied Urrutia argazkigintza irakasleari proposatu zion erakusketa sortzea, neurri handikoa, kalean jartzeko.

Genero ikuspegia

Hasieran ideiak ez zuten genero ikuspegia berez txertatuta, baina Urrutiak hiru emakume argazkilariri hautatu zituen antzeko begirada dutelako: "Sortzaile ezagunak gonbidatu bagenu, agian ez litzateke posible proiektu erabat koherentea egitea, baina Bruna Aldama, Ainara Robles eta Iratxe Rotella aspaldi ezagutzen ditut eta badakit antzeko begirada dutela. Euren arteko elkarlana sustatu dut Egun berean egin genituen irudi guztiak eta elkar lagundu zuten argiarekin, adibidez. Asmoa zen erakustea emakumezko ez dugula lehiakortasun toxikorik".

Erretratuak

Hasierako ideia hiru erretratu sortzea zen, baina ez zuten zehaz-

tu nor agertu behar zen. Edonola ere, ideia "Denok gara norbait" izanik, Urrutiak proposatu zien hiru argazkilariei miresten zuten pertsona bana aukeratzea eta guztiak erabaki zuten emakumeak izatea.

"Guztiok gara norbait bizitza honetan. Proiektio publiko handiagoa edo txikiagoa izan, gure inguruan eragiten dugu, hortaz, jende oro da garrantzitsua", argitu du Urrutiak.

Erantzunak

Argazkiak duela astebete instalatu zituzten udaletxean, Kultura Etxean eta liburutegian. Geroztik, herritarren artean jakin-mina, ezustea eta erantzun anitzak eragin dituzte. "Batzuek aipatu dute ea zergatik zegoen emakume hau edo bestea. Ez zergatik eraketa ez beste batzuk", azaldu dute.

"Orain mezuazabaldutugula, espero dugu jendeak zuen iritzia aldatzea eta aldatzea eta zerbait sortzea bere baitan", aldarrikatu du Maied Urrutiak.

ARTE HARTZE ZIKLOA 2024 SORMENA BILUZTUZ

Azaroak 10, igandea 18:00 · Faktorian

LA DESCARRADA

ANE GEBARA

Antzerkia
BAZKIDEEK 8€
EZ-BAZKIDEEK 10€
LANGABEEK/IKASLEEK 5€

LAGUNTZAILEAK: SHUA GROUP, BABESLEA: araba álava foru aldundia diputación foral

Urriaren 27an Detroiteko Shua Group taldeak performancea aurkeztu zuen Faktorian, eskualdeko sortzaileekin elkarlanean. Bertan egon zen Agus Perez eta ikusitakoaren gaineko kritika artistikoa plazaratu du.

Bertoko artistak nazioartean saretzen



Shua Groupek eta Amorantek gozamina eta harridura sortu dituzte Faktorian. Aiaraldea.eus



Testua
Agus Perez

Shua Group kolektibo estatubatuarra etorri da Aiaraldeko Ekintzen Faktoriara, kooperatiba integralak urtero antolatzen duen Arte Hartze zikloaren barruan. *Erritualak espazioan* deitu da proposamena, eta egoiki deritzot izendapenari, faktoriako guneak sormenez eta gogoz bete dituztelako urriaren 27an izandako performancean.

Kolektibo estatubatuarrek beste kide edo partaide batzuk dauzka Detroiten, baina haren sortzaileak Joshua Bisset eta Laura Quattrocchi ditugu eta haiek izan dira oraingo lana sortzearen arduradunak, Faktoriak egindako proposamenari segika. Izan ere, kolektiboa espezialista

da gizarte-gaiak era performatiboan erakusten, unean-unean prestaturiko artista edo kaleko jendearen laguntzarekin, eta oraingo honetan Aiaraldeko Faktoriak bertoko bi dantzari, musikari bat eta teknikari bat konbokatatu ditu sorkuntza prozesurako, haiek guztiak –teknikaria barne– piezarako performer bihurtuta.

Bestetik, komeni da jakitea kolektiboak pabilioi industrial handi bat erosi zuela saldo prezioan desindustrializazio basatiak suntsitutako Detroit hirian, eta han jardun dutela azken hamarkadan esperantza-dutxak bezalako ekimen poetiko-politikoak gauzatuz eta zaborrarekin sortutako baimenik gabeko artea hirian geratu ziren beltz pobretuen bizilekuetan sakabanatuz.

Ekintzen Faktoriak jarri zien

beste eskakizun bat izan zen euskarari kasu egitea, eta alde horretatik oso bide esanguratsuari ekin diote emanaldiaren pasarte batean, euskarazko hitzak izan zitezkeenak era musikatuan eta esangura mentalik gabe ahoskatuz. Zeren eta artistek Faktorian entzuten zuten euskararen doinuei eta ahoskatzei erreparatu diete, eta hortik eraiki dute beren interpretazioa, beraiengan sortu diren sentsazioetatik. Niri behintzat iruditu zait –eta uste dut beste askori ere bai– Mikel Laboak bere Lekeutio-etan asmatu zuen teknika ahaztezina baliatu dutela instintiboki, eta bertoko artistek geroago eman zietenla egitate horren berri.

Esan bezala, lokaleko leku asko eraldatu dituzte beren presentzia artistikoarekin, eta haien artean

bereziki interesgarriak egin zaizkigu haiek bulego hutsetan sartu eta guk kanpoko bentana handietatik ikusi ditugun eszena oniriko laburrak, Peru Galbeteren ahots iradokitzaileak lagunduta. Finean, *site-specific* delako bat izan da, eredugarria benetan espazioen erabileragatik –ibaiairen presentzia barne–, emanaldiaren erritmoagatik eta ikusleen parte-hartze dinamikoagatik.

Jardunaldia amaitzeko, Amoranteren kontzertua etorri da. Elgoibarko artistak maisuki uztartu ditu doinu garaikide aurreratuekin euskal erroetatik sortutako ahots-tinbrea eta melodiak, hurbiltasuna beti lagun, eta haren artea beren-beregi estimatu dute soinuei kasu berezia ematen dieten Detroiteko lagunek.

PERFORMANCEA:
Erritualak espazioan

KONPAINIA:
Shua Group

SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA:
Joshua Bisset, Laura Quattrocchi, Paula Urkijo, Alberto Fernandez, Leire Sanjurjo eta Peru Galbete

LEKUA:
Aiaraldea Ekintzen Faktoria

EGUNA:
2023ko urriaren 27a

kultura



MARI CARMEN MORILLO MARTIN (Amurrio, 1964) IDAZLEA ETA IRAKASLEA DA. BERE BIGARREN LIBURUA ARGITARATU DU AURTEN, *LOS OJOS QUE NUNCA DUERMEN* IZENEKOA.



Testua eta argazkia
Elene Abaroa Zorrozueta

Noiz hasi zinen idazten? Betidanik gustatu izan zaizu?

Betidanik gustatu izan zait irakurtzea eta idaztea. Askok gustatzen zait letrekin eta humanitateekin zerikusia duen guztia. Izan ere, Letrak ikasi nituen unibertsitatean. Liburuak idazten 2015. urtean hasi nintzen. *Que te lo cuente mi perra* idatzi nuen lehendabizi eta ondoren etorri zen *Los ojos que nunca duermen* liburuak. Bizitakoaren eta nire pentsamenduen inguruko oharrek ere idazten ditut.

Nola definituko zenuke zure ibilbidea idazle bezala?

Ni ingelesko irakaslea naiz, hori da nire lanbidea. Idaz-

le amateurra naiz, ez naiz profesionala. Nire zaletasun bat da, asko gustatzen zait. Idazteak bakea eta ongizatea ematen dit eta nire buru osasunerako lagungarria da.


Los ojos que nunca duermen liburuan Miguelo izeneko umezurtz baten istorioa kontatzen duzu. Zergatik kontatu nahi izan duzu istorio hau?

Istorio asmatua da, ez du errealitatearekin zerikusirik. Ez naiz benetako gertaeretan edo bizipenetan oinarritu. 1960ko hamarkadako umezurtz baten istorioa bururatu zitzaidan, ni jaio nintzen hamarkadako, eta Palentziako katedralean kokatu nahi izan nuen, nire ama jaio zen probintziako hiriburuan. Lotura estua dut probintzia horrekin, askotan joan naiz bertara oporretan, oso gustu-

ko dut. Palentziako katedrala ere oso polita iruditzen zait eta gargolek ere arreta ematen didate, oso politak dira eta mota askotakoak eta desberdinak dira.

Zer irakurri ahal izango dugu liburu honetan?

Liburu honek Migueloren, 1960. hamarkadako haur umezurtz baten istorioa kontatzen du. Ume horrek ikasteko eta gauzak jakiteko grina handia du eta horregatik lapurretaren bat egiten du. Umezurtz-etxe batean bizi da eta bere ametsa familia batek adoptatzea da. Horretarako, bi urtetan zehar ondo portatu behar dela esaten diote. Miguelo bi urte horietan jarrera ona izaten saiatzen da baina urte horiek amaitzean daudenean delitu batzuk gertatzen dira eta bera tartean dago. Gargolek umea lagun-



“Idazteak bakea eta ongizatea ematen dit eta nire buru osasunerako lagungarria da”

duko dute. Elezahar baten arabera, horiek dena ikusten dute eta gauean bizia hartzen dute. Horregaitik du izenburu hori liburua. Istorioak amets baten bila joatea du ardatz. Zerbait lortu nahi baduzu, horren bila joan. Hori pixka bat autobiografikoa da, nik beti izan baitut pentsaera hori.

Zenbat denbora egon zara liburua idazten? Noiz hasi zinen?

Ez nuen denbora asko eman liburua idazten, ez nuen ikerketa handirik egin behar izan. Katedralaren inguruko informazio apur bat bildu behar izan dut, eta Palentziako historia, gutxi gorabehera, banekien. Liburu hau, lehena amaitu ostean hasi nuen. Hiruzpalau hilabete eman nituen idazten.

Uztailean argitaratu zenuen liburua eta urriaren 18an aurkeztu zenuen. Zer nolako harrera izan du orain arte?

Oso pozik nago harrerarekin. Amurrioko liburu-denda guztietan dago eta jende askok erosi du. Herrian nahiko harrera ona du, liburua sinatzeko ere eskatzen didate. Nire ikasleak ere erosten ari dira eta asko gustatzen zaie-la esaten didate. Espero dut Palentzian ere harrera ona izatea. Azaroan aurkeztuko dut bertan. Bilbon eta Gasteizen ere egingo ditut aurkezpenak.

Ilustrazioak ere zuk egin dituzu. Nolako izan da idazketa eta marrazketa uztartzeko prozesua?

Liburua argitaratu baino lehenago, argitaletxeak ilustratzailek nuen galdetu zidan. Nik esan nien ilustratzaile

lea ni izango nintzela. Ez naiz marrazten aditua, baina gustatzen zait. Irudiak kopiatzen ondo moldatzen naiz. Kapitulu bakoitzaren hasieran gargola bat dago, argazkietatik kopiatu ditudanak. Katedralako trifolioaren ilustrazio bat ere badago, Palentziako panoramika ikusten baita bertatik. Protagonistaren ilustrazioa nik asmatu dut. Horretan aditua ez naizen arren, marraztera ausartu naiz.

“Nire ama duela bi urte hil zen eta berari omenaldi bat egiteko erabaki nuen liburua argitaratzea”

Liburua Palentzian kokatuta dago, zergatik erabaki zenuen bertan kokatzea?

Katedralako gargola denak animaliak, munstroak eta izaki arraroak dira, bat izan ezik. Hau argazkilarik baten gargola da. Azken honek inspiratu ninduen liburua idazteko. Lehen esan bezala, katedralarekin lotura estua dut, nire ama Palentziako Ampudia herrian jaio zelako. Istorio hau nire amaren omenez idaztea erabaki nuen.

Zein adineko umeentzako liburua da?

12 urtetik gorako umeentzako liburua da. Hala ere, edozeinek irakurri dezake. Oso liburu hunkigarria da.

Anekdotak moduan, liburu hau idatzi nuenean nire alabak 16 urte zituen eta irakurri zuenean hunkitu egin zen. Orain, 7 urte beranduago, berriro irakurri du eta berriro hunkitu da.

Nolako izan da liburua argitaratzeko prozesua?

Argitaletxeari aurreko libururekin batera, honen zirriborroa bidali nion eta esan zidaten nahi nuenean argitaratu nezakeela. Baina liburu bat argitaratzeko gauza asko egin behar izatea dakar. Nire lanak ere denbora asko kentzen dit eta liburuen argitalpenaren ideia alde batera utzi nuen. Nire ama duela bi urte hil zen eta berari omenaldi bat egiteko erabaki nuen argitaratzea.

Etorkizunerako beste eleberriren bat argitaratzea duzu pentsatuta?

Helduentzako eleberririk baten gidoia idatzi nuen duela denbora asko. Baina liburu hau idazteko ikertu egin behar dut, Irlandan zentratzen da, IRAren garaian. Lurralde horrekin ere lotura handia dut, askotan joan naizelako bertara ingelesa praktikatzera. Mutil irlandar bat izango da protagonista eta kutsu autobiografikoa bat ere izango du, bertan bizi izan ditudan gertaera batzuekin. Nire istorio guztiek dute nirekin zerikusia.

kirola



El Capitaneko granitoetan jarri du sinadura Tasio Martinek

Mendi espedizio eta eskalada bideen bitakora gizenduz eta gizenduz jarraitzen du Tasio Martin Elorrietak. Espainiako Alpinismo Taldean izandako hiru urteko esperientziaren ostean ortzimuga berrietan barrena dabil alpinista urduñarra. Estatu Batuetan dabil orain, bere sinadura utziz herrialdeko eskalada gune ezagunenetan.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Kirol ibilbide oparoa lorpen berri batekin jantzi du Tasio Martin Elorrieta alpinista urduñarrak: *Golden Gate* bide exigentea eskalatu du, Yosemiteko (AEB) El Capitan ospetsuan.

Alpinismoan murgilduta

Kataluniako Mendi Federazio-ko Alpinismo Teknifikazio Taldean aritu ostean, Espainiako Federazioko Alpinismo taldeko kidea izan da Martin azken hiru urteetan, Mikel Zabalza alpinista nafarraren gidaritzapean. Ugariak izan dira azken hiru urteetan Martinek garatutako proiektu eta espedizioak.

Horien artean aurkitzen da urte hasieran Patagoniako Cerro Torre mendi ezagunean egindako eskaladaikusgarria. Udan Pakistaneko K7 mendira jo zuen FED-MEko taldeak, eta istripu arriskutsua pairatu zuen bertan alpinista urduñarrak. Sustoa gorputzetik uxatuta, ordea, balentrias balentria jarraitzen du Martinek, eta AEBtara salto egin aurretik, hiru urte hauetan Espainiako Alpinismo Taldea osatu duten mendizaleek Anso (Aragoi) bailaran eskalatzen agurtu zuten zalantzarik gabe nekez ahaztuko duten kirol-etapa hau.

Yosemiten

Mundu osoko eskalatzaileen Meca bilakatu da Californiako

(AEB) Yosemite parke nazionala, bertako granitozko haitz erraldoiak historiako eskalatzaile onenatarikoen balentriarik entzutetsuenen lekuko izan dira.

Balentria horien artean aurkitzen da Alex Honnold eskalatzaille estatubatuarrek 2017an El Capitan deituriko monolito granitikoan egindako eskalada. Alex Honnoldek haitz horretako 800 metrotako eta 7c+ zailtasuneko *Freerider* bidea eskalatu zuen lau ordu baino gutxiagoan, inolako sokarik erabili gabe.

Golden Gate

Alex Honnoldek eskalatu zuen harriztar berdinean, El Capitanen, utzi du bere sinadura Martinek. *Golden Gate* bidea es-

El Capitaneko tontorrean amaitzen den 900 metrotako eta 8b graduko eskalada bidea eskalatu du Tasio Martinek: Golden Gate

kalatuz. Hamar laguneko taldearekin joan da uduñarra Californiako parke nazionalera, eta lehenengo egunak eskalada bide laburrak igotzen igaro ostean, *Golden Gate* bidean sartu zen Mikel Inoriza eta Nil Alcubilla sokakideekin batera.

El Capitaneko tontorrean amaitzen den 900 metrotako eta 8b graduko eskalada bidea da *Golden Gate*. Huber anaiek ireki zuten bidea 2000ko urrian. Martinek, Inorizak eta Alcubillak zazpi eguneko lana behar izan zuten hau osatzeko. Librean eskalatu dute bidea, hau da, igoeran laguntzeko inolako materialik gabe (segurtasunerako materialaz gain). "Librean eskalatzek ahalegin handiagoa eskatu

digu —azaldu dio Tasio martinek Aiaraldea Komunikabideari—. Pakistaneko istripuz geroztik minekin jarraitzen dut, eta banekien ez nengoela nire sasoirik onenean. Argi neukan ez nuela sokakideen progresioa moteldu nahi. Luze gutxi batzuk izan ezik, gehienak librean egitea lortu dut, eta izugarria izan da hori. Mikelek eta Nilek dena egin dute librean, eta horren lekuko izatea ere kristona izan da”.

Sei egun horman

Zazpi egunetan osatu dute Golden Gate bidea Tasiok eta bere ki-deek. Horietako sei horman eskegita igaro dituzte, lurrera jaitsi gabe.

Lehenengo egunean Freeblast deituriko zatiko bideak eskalatu zituzten. Yosemiteko eskalada ezagun askoren hasiera komuna da Freeblast. Bertako bideak eskalatuta, lurrera jaitsi ziren eta horman eskegita igarotzeko material guztia kargatu zuten. Guztira 100 kilo baino gehiago bildu zituzten petateetan, horien artean 50 litro ur baino gehiago. Bi-

dean gora eskalatu ahala motxilak eta materiala ere igotzen aritu ziren. Lo ere horman eskegita egin zuten, horretarako hama-kak baliatuta.

El Capitaneko luze gogor eta ezagunak eskalatu dituzte horman gora egindako sei egunetan: *Monster Offwidth*, *The Move* edota *Golden Desert*.

Ekaitza tontorrean

Azken egunean bideko luzerik gogorrenak kateatu zituzten. “Horman lo egitea zen asmoa, baina luze horiek garaiz gainditu genituen aurrera jarraitzea erabaki genuen”, azaldu du urduñarrak. Tontorrera iristeko bi luzeren faltan zeudela, ordea, egundoko ekaitza lehertu zen hiru eskalatzailen gainean.


“Horman eskegita geratu ginen blai-blai eginda. Ezin izan genuen hamaka montatu, taldorik ez geneukalako. Egundoko hotza egiten zuen, eta arrokak bustita zegoenez ezin ginen eskalatzeko atera —adierazi du Tasio Martinek—. Su xikiarekin berotu genituen eskuak, eta

azkenena lortu genuen hamaka montatzea”. Une “kritikoak” izan zirela nabarmendu du Martinek, lagunak eta parke nazionaleko erreskate taldea abisatzera iritsi ziren ere. Baldintzak, ordea, oso konplexuak ziren, hiru eskalatzaileri edozein laguntza eskaini ahal izateko. Zailtasunak zailtasun, gaua hamaka estuan pasatzea lortu zuten, eta biharamunean inolako arazorik gabe gainditu zuten azken luzea.

Erronka berrien bila

Lortutakoarekin oso pozik eta asetuta azaldu da Tasio Martin Aiaraldea Komunikabidearen aurrean. “Izugarrizko esperientzia izan da niretzako. Lehenengo aldia nuen hau Big Wall logistikarekin horma bat eskalatzeko. Zazpi egun horman guztia soinean eramanda: ura, hama-kak... kriston esperientzia izan da”, adierazi du alpinista Urduñarrak.

Yosemite atzean utzita, Estatu Batuetako eskalada gune berrietan ari da orain Martin, erronka berrien bila.



argazki erreportajea

Amurrio, Fraideburu eta Goizale Aterpea lotu ditu Gorobel Ibilaldiaren XXXVIII. edizioak. Ehunka mendizalek egin zuten bat azaroaren 3ko hitzorduan, eguzkiaz eta laino-opilaz gozatzeko helburuarekin.

Fraideburu protagonista Gorobel mendi ibilaldiaren edizio arrakastatsu berrian

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Arrakastatsua izan da oso Gorobel Ibilaldiaren azken edizioa. Asteburuko giro epelak eskualdeko mendietaz egun ederra utzi zien Amurrión elkartutako 1.200 mendizaleei. Hego-haizeak eta laino opilak are ikusgarriago egin zituzten eskualdeko paisaiak.

Mendiko Lagunak taldeko

kideek oso balorazio positiboa egin dute, eta eskerrak eman dizkiete antolakuntzan lagundu duten boluntario guztiei.

Fraideburu protagonista

Aurtengo edizioak bat egin du Gorobel mendilerroko Fraideburu mendira egindako lehenengo igoeraren mendeurrenarekin. Angel Sopena alpinistak 1924ko martxoaren 16an eskalatu zuen

haitz ezaguna lehenengo aldiz, Euskal Herriko lehenengo eskalada bidea sinatuz, euskal mendizaletasunaren historian mugarrira ezarrita. Mendiko Lagunak kideek eskalada entzutetsu horren efemeridea ospatzea erabaki zuten. Hori dela eta, Gorobel Ibilaldiko bi ibilbide nagusiek fraide itxura duen haitza ezaguna inguratuko zuten.

Argazkiak: Endika Larrazabal



argazki erreportajea



kirola

XAKEA

Laudion xakeari bultzada emango diote azarotik aurrera, ostiralero eskolak eskainiz



Laudio Xake Kirol Klubak antolatutako jardueretako bat. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Xakea biziberritzea izango da Laudio kirol klubaren helburua azarotik aurrera. Horretarako bi egitasmo iragarri dituzte. Haste-ko, ostiralero elkarteak aiteak irekiko ditu Lamuzako liburutegi ohian eta nahi duenak jokatzeko parada izango du. 18:30ean ekingo diote 20:30ak arte. Interesdunek ere bere lehen esperientzia izan dezakete xakearekin, horrela nahi izanez gero.

Horrez gain, audioarrek es-

kolak emango dituzte hurrengo hilean eta jasotzen dituzten eskaeren arabera antolatuko dituzte ikasleak taldeka. Halaber, abenduan bazkideen arteko txapelketa deitzea aurreikusi dute.

Amurrio erreferente

Laudio kirol klubak Amurrioko eredu jarraitu nahi du proposamen horrekin. Amurriorekin 45-50 kide biltzea lortu dute, lau eskolak taldeetan banatuta: bi umeentzat, eta bana helduentzat eta erretiratuentzat.

TXIRRINDULARITZA

Iñaki Carro Europako ziklo-kros txapelduna, Master 35-39 kategorian



Iñaki Carro onena izan da bere kategorian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Pontevedran (Galizia) lehia da Europako Ziklo-kros Txapelketa eta Iñaki Carro laudioarrak emaitza bikainak erdietsi ditu. Izan ere, Master 35-39 kategorian txapelduna izan da. Carrok bazekien iaztik, Espainiako txapelduna izan zenean, Galizian izango zela Europako

Txapelketa, eta hasieran ez zuten helburu handirik buruan. Baina data hauek berarentzat egokiak dira lehiazeko: "Euskadiko eta Espainiako Txapelketak dira nire xedeak. Hortaz, tarte honetan sasoi onean nago". Konfiantzaz moldatu da Galiziako zirkuituan: "Zirkuitu gogorra da. Akatsak egin gabe eta ondo kokatu-ta joan naiz, ezer oparitu gabe".

MENDIKO TRAIL-A

"Lokatz festa" iragarri dute Soxoguti Erronkaren lehenengo edizioan



Azaroaren 14an egingo dute Soxoguti Erronka, 17 kilometroko trail lasterketa. Aiaraldea.eus

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Agendan markatzeko kirol-ekitaldi berria izango du aurrerantzean Artziniegak: Soxoguti Erronka. Ganzorrotz Mendi Taldeak antolatu du hitzordu berriaren lehenengo edizioa, eta abenduaren 14an egingo dute; Artziniegako Soxoguti herrian bertan.

Hitzordu bikoitza

Udalerriko mendiak eta naturguneak zeharkatuko dituen mendi lasterketa izango da kirol ekitaldiaren muina. Ganzorrotz taldeko kideek 17 kilometroko ibilbidea osatu dute Soxoguti herriko baso eta bideetan barrena. "Zaballa-Ganzorrotz eta Otsati mendietara igoko da, eta hala 900 metro inguruko desnibela metatuko da", azaldu dute antolatzaileek.

Trail lasterketa 10:30ean abiatuko da, baina hori ez da izango kirol-ekitaldiko hitzordu bakarra. Ordu bete lehenago, 9:30ean, mendi martxa hasiko da, trail

Soxoguti Erronkaren lehenengo edizioa antolatuko du Artziniegako Ganzorrotz Mendi Taldeak

lasterketaren ibilbide berdina jarraituko duena. Egun osoko plana bihurtu nahi dute antolatzaileek Soxoguti Erronka. Horretarako musika, haurrentzako puzgarriak eta jatekoa eskainiko dituzte herrian, baita kirolari-entzako aldagela eta dutxak ere.

"Ingurumenarekiko errespetu osoz antolatu nahi dugu lasterketa, Artziniega gure herria eta bertako naturguneak ezagutzera emateko helburuarekin", aldarrikatu dute Ganzorrotzeko kideek. Ohar bat ere utzi diete parte-hartzaileei: "Lokatz festa garrantzitsua da. Ez etorri!".

Izen ematea zabalik

Honezkero zabalik dago Soxoguti Erronkan izena emateko epea. Dortsala Internet bidez eskuratu ahalko da. Azaroaren 25era arte 15 euroko prezioa izango dute izen-emateek, eta egun horretatik aurrera 20 eurokoa. Dortsalarekin batera kamiseta bana jasoko du parte-hartzaile bakoitzak. Aurretiaz ere eros daiteke eslastikoa.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 20an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Peio eta Leire

Zorionak Leire eta Peio! Super ondo pasa zuen egunean! Segi urteak irriz betetzen (: Musu eta besarkada bana!

Familia



BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!

Denborapasak

ZAILA

		9						
7	4							3
			1	8		4		
						1		
		2		4		5	8	
	1						4	6
6	9							
		4	6				7	
		1	4	5				9

OSO ZAILA

						8	2	3
					5		4	
7	3	2	4					
		3		5			9	
	5	9		4				6
				7		5		
2	4		8	9				
	6							
							3	7

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/denborapasak>

Zozketa



Nafarroa hegoaldeko produktuz osaturiko Errigorako hiru saski zozkatuko ditu Aiaraldea Komunikabideak

Nafarroa hegoaldeko ekoizleen produktuz osatutako Errigora saskiak zozkatuko ditu komunikabideak

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Azaroak 13, 15:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA

HAIZENE ETA OROITZAPENEN INDARRA

Egilea: Maitane Gomez Perez

Ilustratzailea: Nerina Vallejo

Editoriala: Babidibu

Amurrioko idazleak, dolua bizitzeko ipuin bat idatzi berri du. Ipuinean dodoka baten amonaren galeraren aurrean, modu kolektiboan dolua pasatzeko modu berezi bat asmatzen dute.



ESKULARRU BELTZAK

Egilea: Jasone Osoro

Ilustratzailea: "Josevisky" Larretxe

Adina: 8 urtetatik gora

Liburu ezberdinez osatutako bilduma honek, nerabe batzuen historioak kontatzen ditu.

Oos bilduma interesgarria da nerabeen irakurzaletasuna lantzeko. Beraien burua ikusi ahal baitute istorioetan



GABON EGUTEGIA



AZALPEN LABURRA:

Gabonetako egutegia, abenduaren 1etik abenduaren 24ra luzatzen den proposamen bat da. Neguko solstizioa iragartzeko egutegi bat da, zeinetan fisikoki ikus daitekeen zenbat egun falta diren solstizioa heltzeko.

Haurrentzako interesgarria da, egun bereziak izaten baitira beraientzat eta fisikoki ikusgarria egiten da zenbat egun falta diren.

Gainera, familian zein lagunekin planak egiteko eta hauei garrantzia emateko baliatu daiteke.

Gabonetako egutegi batzuk kontsumora bideratuak daude eta gabonetatik hainbeste erakartzen ez gaituzten kontsumo ereduera. Baina bada modua hauetatik hurruntzeko eta beste gabon egutegi batzuk egiteko.

Gabonetako egutegia norberak sortua izan daiteke edo erositia. Garrantzitsuena da barruan gordetzen duena. Guk egun bakoitzak gorde dezakeenaren adibideak planteatuko dizkizuegu. Denak dira familian egiteko planak, hauek idatziz aurkeztu daitezke edo plan bakoitzak zerbait fisikoa izan dezake.

Planak errealistak izatea eta norbere familiari doituak izatea garrantzitsuena da.

PROPOSAMENAK:

- 1.- Baso ibilaldia egingo dugu. Bertan natur elementuak jaso eta gabon apaingarriak egingo ditugu familian. Horretarako gabon apaingarri bat sartuta egon daiteke egutegian.
- 2.- Elkarrekin Mari Domingiri eskutitza idatziko diogu. Arkatz berezi bat sartu daiteke.
- 3.- Bi musu jasotzeko bonoak. Fisikoki bonoak sartu daitezke
- 4.- Afari berezi bat egingo dugu. Hauraren jaki gustokoenaren argazkia sartu daiteke.
- 5.- Etxea gabonetarako apaindu. Apaingarri bat sartu daiteke.
- 6.- Gabonetako ikuskizun baterako sarrerak. Sarrerak sar daitezke
- 7.- Gabonetako iratxoa egingo dugu. Iratxoa egiteko materiala sartu daiteke
- 8.- Gabonetako ipuin bat kontatu. Ipuina bera sartu daiteke
- 9.- Gaztainak egosi edo erre. Gaztain bat sartu daiteke
- 10.- Olentzero eta Mari Domingiri marrazki bat egin. Margo batzuk sartu daitezke
- 11.- Klariona batzuk sartu, kalean jolasteko aukera emango diotenak
- 12.- Mahai jolasetara familian jolastu. Mahai jolas horren fitxa bat sartu daiteke
- 13.- Gabonetako gailetak egin. Errezeta sartu daiteke.
- 14.- Mendira joan eta harriak bildu, gero. Tenpera pote bat edo pintzel bat sartu daiteke.
- 15.- Familian gabon abestiak abestu. Perkusio instrumentu txiki bat sartu daiteke
- 16.- Etxeko lehioak dekoratu. Ezabatu daitekeen errotulki bat sartu
- 17.- Udal liburutegira Joan eta bertan ipuin berezi bat aukeratu. Udal liburutegiko txartela sartu daiteke.
- 18.- Maite duzun persona bati eskutitz bat idatzi. Margo berezi bat sartu daiteke.
- 19.- Etxean dugun jostailu bat, beste haur bati eman. Txintxarri bat sartu daiteke, egin dutena gogoratzeko.
- 20.- Familian gabon ikuskizun bat prestatu, beste familiako kideei erakusteko. Serpentina sartu daiteke
- 21.- Ausartzen ez zaren gauza polit hori egiteko aukera. Superheroi betaurreko batzuk sartu, botere hori duzula irudikatzen.
- 22.- Familian txiste bat asmatu. Sudur gorri bat sartu daiteke.
- 23.- Auzokideei urtea alaituko dien mezu bat idatzi. Paper berezi bat sartu daiteke.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Gabonak

Azaroan sartzearekin batera, Gabon usaina hasten gara nabaritzen. Gabonetan neguan sartzen garela ospatzen dugu. Gure Amalurrak fase aldaketa bat du eta egun horretatik aurrera egunak gauari tartea hartzen hasten da. Egundak garrantzitsuak izan da betidanik egunik laburrena delako, baina poztasun egun bat da hortik aurrera eguzkiak ilargiari irabazten baitio denboraren borroka.


Urteekin kontsumismora mugitu den arren, jaiak naturarekin harreman handia du. Horregatik naturarekin berriro konektatzeko aukera zabalik dago garai hauetan. Euskal Herriko ohituren arabera gabonetan zuhaitz berezi batetik egur handi bat hartu eta erre egiten zuten. Sua betidanik erabili izan da fase aldaketak errealizatzeko. Baina, sua eguzkiaren lurreko errepresentazioa izanik, garai honetan adiera berezia hartzen du. Eguzkiari ongi etorria ematen zaio sua baliatuz.

Naturarekin berriro konektatzeko, gu ere basora joan gaitzeko eta deitzen gaituen zuhaitz batetik adar batzuk hartu ditzakegu eta gure gabon erritua egin.

Gabonak eta natura batera bizitzera gonbidatzen zaituztegu, oparien eta jatekoen kontsumismo basatia alde batera utziz eta naturarekin berekonektatuz.


Handienetik txikienera

Ordenatu ahate hauek handienetik txikienera (1etik 8ra zenbatu, hurrenez hurren).




Pareak bai!


Txita hauetarik gehienek bikia dute, batek izan ezik. Eta hirukiak ere badira. Aurkitu hirukiak eta parerik ez duena.



Margotu



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA




Mezu gordea

Eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti bitxi bat agertuko zaizu. Beharbada buruz dakizu... Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.

Mezu gordea

SOLUZIOAK



Kontra

Mundutik Aiaraidera


Shawn Wilson

Shua Group

JAIOTERRIA
DETROIT (AEB)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
FAKTORIAN PERFORMANCE BAT SORTZEA



“AEBn ez dituzu ikusten adin desberdineko herritarrek espazioa elkarbanatzen”

Interesgarria da Detroiti buruz hitz egitea, han bizi baitzarete eta egoera oso berezia da hiriarena.

Joshua Bisset: Detroit hiri moderno da. Izan ere, han eraiki zuen Ford konpainiak lehen muntaketa linea. Han hasi ziren autoak ekoizten eta, nolabait, makina modernoak jaioterra da. Oso hiri ikonikoa da historia modernoan. Energia berezia dauka industrializazioaren garapenari lotuta, baina baita desindustrializazioaren historiari ere, Mendebaldeko herrialdetan gutxienez.

1970etik aurrera hiri askotan islatu zen desindustrializazioa, Ford edo General Motors bezalako konpainiak hasi zirenean autoak produzitzeko modu merkeagoak bilatzen. Ekoizpena Detroitetik atera zuten, milaka lanpostu galdu ziren, jendeak hiria utzi zuen eta, ondorioz, beste hainbat toki industrializatu bezala, Detroiten biztanleria galera jazo zen, baita abandonua ere.

Aldi berean, Detroit beti izan da oso toki aberatsa artearentzat, musikaren esparruan, bereziki.

Motown diskoetxea, MC5 taldea, Iggy Pop, punka, techno musika Detroiten sortu ziren... Hortaz, hiri txiki honek sekulako eragina izan du munduan. Horrez gain, Detroit, Ameriketako Estatu Batuetako hainbat hirik bezala, arraza polarizazio handia dauka; borroak, indarkeria... Horretarako ulertu behar da Hegoaldeko amerikar beltzek iparraldera jo zutela lan bila eta etxea topatu zutela Iparraldeko industrian. Egun, Detroit da Estatu Batuetako hiririk beltzena. %80 afroamerikarrak

dira. Baltimore, Atlanta, Philadelphia eta Detroit antzekoak dira zentzu horretan eta tankerako arraza dinamikak dituzte.

Detroiti buruz entzuten edo irakurtzen dugunean, askotan da krimenari, desindustrializazioa edo zailtasunei buruz.

J.B.: Gu Fenkell Street-en bizi gara. Oso ospe txarra dauka indarkeriari eta krimenari dagokionez. Detroiteko jende gehienarentzat irudi negatiboa dauka, baina han gu oso ondo sentitzen gara. New Yorken bizi izan gara lehenago eta inoiz ez genuen izan aukide sentimendua. Inork ez zizun esaten “kaixo” kalean, inork ez zuen inor ezagutzen kalean...

Oso modu bizian, jo take, arizaret sortzen. Ez dakit Faktoriatik ateratzerik izan duzuen.

Laura Quatrocchi: Bai, mugitu gara hemendik, arkitektura ulertzeko eta imajinatzeke lehen zer zen. Ibaiaren inguruetatik paseatu dugu eta Laudiora joan gara. Toki atsegina da, ume pilo ikusi ditugu plazan jolasten eta hori guretzat osasungarria da. Positiboki sentitu dugu.

Ez dugu Laudiotik kanpo esploratzeko tarte handirik izan, baina jende nagusi mordoak ikusi dugu paseatzen hemendik, eta hori ere osasun adierazlea iruditu zaigu, seguru sentitzen dira eta paseoa zoragarria da, mendiak... Ez da leku txarra bizitzeko.

Adin ezberdineko herritarrek ere espazioa partekatzen dute eta hori ere osasungarria da.

J.B: Estatu Batuetan ez duzu ikusten adin nahasketa hori, ez da erraza. Oso atsegina da hori ikustea. Politika da beste kulturen xehetasunen lekuko izatea. Kanpora begiratzea eta jendea arropa eskegitzen ikustea, arroparen kolorea... Horrelako egonaldia oparibat da, beste mundu baten irudia hartzeko aukera.

DETROIT



DESKRIBAPENA

AEBko Mendebalde Ertainean dagoen Michigan estatuko hiririk populatuena da Detroit. Autogintza industriari estu lotutako metropolia da. Azken urteetako krisi ekonomikoek gogor kolpatu dute hiria.

AZALERA

370,2 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

639.111 biztanle.

HIZKUNTZA

Ingelesa da bertako hizkuntza ofiziala.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte

Tirada: 10.000 ale.

Maiztasuna: Hamabostekaria

Lege gordailua: BI-1230-2013

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

erredakzioa@aiaraldea.eus

Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus

Tlfnoa: 688 62 53 94

Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia,

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00

Web-gunea: www.aiaraldea.eus

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea

Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan

adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE

BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu

Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas,

Christian Alemany, Gartzten Garaio,

Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki


Larrakoetxea, Amets Meaza,

Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto

Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe

Etxepeleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

ENKARKI

ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

ANOVA MG2600 MOTOZERRA

Zilindro-bolumena: 25,4 CC
Potentzia: 1,2 HP / 0,9 KW
Ezpata: 10" - 25 cm - 3/8" BP Oregon
Katea: 40E - .050" - 1,3 mm Oregon
Karburaigailu mota: Walbro
Pisua: 3,2 kg

224€

BEZ barne

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42
enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net